

**JAUNGOICOAREN AMA  
BIRGIÑA GUZTIZ GARBIAREN  
BIZITZA.**



**BERE DEBOCIÑOECO EGUIQUIZUN,  
ERREGU TA CANTACAZ GUEITUTA,  
DEBOTO BATEC IMINIA.**



*BIAR DAN BAIMENAGAZ.*



**DURANGO:**

Imp., Lib., Enc. y Centro de Suscripciones de Elosu.

**1895**

ATV

39362



M-83067  
F-88166

AV  
39362

**JAUNGOICOAREN AMA**  
**BIRGIÑA GUZTIZ GARBIAREN**  
**BIZITZA.**

—

BERE DEBOCIÑOECO EGUIQUIZUN,  
ERREGU TA CANTACAZ GUEITUTA,  
DEBOTO BATEC IMINIA.

*—*

**BIAR DAN BAIMENAGAZ.**



DURANGO:

Imp., Librería, Ecuadernación y Centro de Suscripciones de Elosu.  
1895.

JAUBEDUNA DA



## SARRERA.

Gure Andra Maria Birgiña da araco Adan peccatariaren jatorritic etorrico emacume orbanbagaric sortua. Araco Jesén mirarizeo cigorra,

jaio zana arraza usteldutic eiquindu бага. Araco Ester doatsua, ceinegaz ez-eucan cer-icusi, Jaungoicoac lurreco paradisuan munduco guizon guztien contra emon eban eriotzaco legueac. Aurturie Dontzella miragarrizco au Jaungoicoaren Semearen Ama izateco, artu cituzan bere lenengo sortuera garbitic gracia doe eta birtute guztia, criatura batec euqui al izan leiqueezanac; bada, onec guztioe, ta gueiago al izan balitz, bear cituzan Jaungoicoaren Ama izango zana. Orregaitic izan zan guztiz garbia bere sortuera dotsuan eta graciaz betea bicitzaren acieratic. Zan munduac icusi daben. ta icusico daben baño criaturaric santuena. Aingueruen garbitasunac, Tronu eta Dominaciñoen leinartasunac edo nobleciac, Querubin eta Serafinen amodioac, eta Aingueruen coru guztien onidade ta anditasunac, ez dauquee bardintzaric Maria Birgiñearen onidade ta anditasunagaz; cergaitic, ceruco espiritu guztia izatez andiac izan arren, ezdira Jaungoicoaren serbitzari batzuc baño, baña Maria Birgiñea euren Eguille ta Jaunaren Ama da. Alan da ce, Ebangelista sagraduac bere alabauzaric andienaraco, bacarric diñoscue Jesus jaio zala bergandic, ecin leiquealaco beragaitic gauza andiagoric esan, Jaungoicoaren Seme Jesusen Ama dala baño.

Gauza egoquia zan, bada Maria Birgiñea peatuaren orban бага sortua izatea, eta bere bicitza guztia irauntea garbitasunean Aita Jaungoicoaren Alaba Seme Jaungoicoaren Ama ta

Espiritu-Santu Jaungoicoaren Esposa izateco.

Jesucristo gure Salbaguillearen bicitzaren urrengo, cein dan donedade guztiaren ispillu, erre-gla ta neurria, imini bear doguz gueure beguiac eta gogoa bere Ama guztiz garbiaren bicitzan. Jaungoicoac izatez dituzan ontasun ta jaquituria azquen bagacoen ezaugarriac, ta bere altasuna-ren aguerquizuna gueien adierazoten daben gauza bat da, Birgiña onen onidade miragarria. Orra cergaitic artu izan dodan asmua bere bicitzea eusqueraz iminteco, laburrean baño espada bere. Eleizaco eracusle ta guraso santu ascoc eracusten dabeen leguez, gueierac aditu daruen berbeta moduan, esaera eder ta loratzu baga ta gogoraci-ñoac laburracaz, bacoac atera daien bear daben icasquizuna bere bicitzaco guertaeretatic.

Baita bere urrengo iminten dira Ama Birgi-ñiaren gustiz gogoco diran debociñoac ta erregu batzuc, eta bere ondraraco cantac berba neur-tuetan.

Iracurri eguizu sarritan iracurle maitea, ta ja-rraitu eguiezu Mariaren icasquizun ederraai; eta liburuchu au gogo onagaz artuten badozu, uste dodan leguez, erregututen deusut, gomutau zai-tezala ceure erregüetan nigaz bere, escatuaz Ma-riari euqui daguidan bere laguntasuna mundu onetan, ta guero guztioac betico zoriontasunean alabadu daigun bere Semeagaz batera.

## MARIA BIRGIÑAREN BICITZA.

### BERE SORTZE GARBI TA JAIOTZEA.

Jaungoicoaren Ama guztiz santu ta gure Andra Maria, jaio zan Nazaret-en, Galileaco urian, guraso aberatz ta nobleacgandic. Bere aitari erichon Joaquin, ta zan Nazaret-en jaioa; Ana zan bere ama, Belengo alabea. Guraso onec ciran Judeatarrac, eta David erreguearen jatorricoac: Joaquin Natan-en aldetic eta Ana Salomon erregueacgandic, ceintzue izan ciran David-en semeac. Dontzella onen gurasoac ciran ecandu ta bicitza guztiz onecuae, eta augaitic egoquiac frutu ain ederra emoteco. Igaroten ebeen bizitzea Jaungoicoaren leguea zucen gordetan, eta barau, erregu ta limosna asco eguiten. Eureen ondasunetaco etorriac banacatuten eituezan iru zatitan: Jerusalemgo templuraco bata, lagun ezeuquiai emoteco bestea, ta eureen echecho preminetaraco irugarren zatia.

Oguei urtean bici izan ciran ezconduta seme ez alabaric euqui бага, cergaitic Anagan ecin sortu zan seiñic, ta augaitic egozan guztiz triste ta atsecabe andiacaz, eta lotzariric andienac igaroten cituezala; bada erri araguicor aretan pameliaric ez euquitea, artuten zan orduco egunetan desondra ta Jaungoicoaren castigutzat, guztia



euqueelaco guraria, euracgandic jaio cedin icha-  
roten eben munduco Salbaguillea. Guraso onec  
eguiten eutseezan Jaungoicoari erreguric bicie-  
nac, arren, emon eiguiuen bere bedeincaciñoeco  
frutua, esquiniric berari consagrauco eutsela  
emoten eutsen seme edo alabia. Jarraituric erre-  
gu ta esquini onetan, aguertu jacon egun baten  
Joaquini aingueru. bat eta esan eutsan, celan  
Jaungoicoac entzun cituzan bere escariac, ta alan  
euquico ebalala alaba bat. ceineri deituco eutsan  
Maria, ta izango zala munduco Salbaguillearen  
Ama. Bardin aguertu jacon ainguerua santa  
Anari bere, cein bici zan bere bacarlecuac, eta  
esan eutsan bere senarrari esan eutsana. Iragarri  
eutseen alcarri baco-chagaz jaso zana, eta icusi  
ebeen bat zala aingueruac batari cein besteari  
esan eutsena. Emon eutseezan Jaunari esquer  
andiac, eguin izan eutsen mesede parebagueagai-  
tic, eta Anagan sortu zan Maria Birgiñea aben-  
duaren zortzian, ceinetan Eleiza santuac ospatu-  
ten daben bere Sortuera garbia edo Concesiñoeco-  
coa. Sortu zan pecatu original edo jatorrizcoa  
baga, emoten eutsazala orduan Jaungoicoac gra-  
cia ain ugariac, errazoe ta egoquia zan leguez eu-  
qui eguizan bere Ama izan bear ebanac, eta  
impernuco suguearen buru apurtzallea izango  
zanac.

Beti sinistu izan dau Eleiza santuac Jaungoi-  
coaren Ama Birgiña Mariaren Sortze garbia; ba-  
ña 1854<sup>co</sup> urterartean ez cituzan condenetau ere-  
jutzat eguia au ucatuten ebeenac: urte orretan

Aita Santu Pio IX<sup>nac</sup> erabagui eban Fedeco eguiatzat mirari doutsu au, artuten ebala Eleiza guztia erabagui ori onerazpen ta poz andiagaz.

Igaroric bederatzi illabete, jaio zan Nazaretan Ume bedeincatu au, bere gurasoac erritic campo-  
ra euqueen eche baten, eheco guztien atseguin ta arzainen cantuen artean. Jaio zan irailaren zortzian ta bederatzi egun igarota, ebreotarren oituran imini eutsen icena Maria. Santu ascoc diñoenez, Jaunac emon eutsan aingueru jaolat-  
zat San Gabriel Goianguerua eta beste aingueru asco beragaz betean. Laroguei egun igaro cira-  
nean, juan zan santa Ana Jerusalenera, garbitu-  
teco leguea betetan, eruanaz bere besoetan Umea templura, eta baraugaitic emonda bear zan ofren-  
dia, biurtu zan beragaz bere echera, nun bici izan zan Maria iru urte bete arte.

## MARIA JERUSALENGO TEMPLUAN.

Bete jacozeanean iru urte Maria Birgiñeari, eroan eben bere gurasoac Nazaretetic Jerusalen-  
go Templura Cemendiaren oguetabat garrenean, betetaco Jaunari eguin eutsen esquintsaria edo promesa, eta emon eutsen orduco Sacerdoteai, oi cirean ceremoniacaz, adierazoric celan esquini eutsen Jaungoicoari, eta escaturic euqui eguiela contu aibeste maite eben alabeagaz, eta imini eguiela Jauna serbiduteco egozan beste dontzellen artean, onetáraco icentauta egoan templuaren

alboco echean, ceinetatic errezago sartuten circan bertara Jaunari erreguac eguiteco. Guztia miraritzu ciran ecin gueiago Dontzella onen edertasuna icusi ebanean ta gueiago oraindiño eracutzi ebanean bere prestutasun ta poza eta araco belaubicoturic escatu eutzenian bedeincaciñoa bere gurasoai, ta euroi agur eguinda presentau zanean San Zacarias sacerdoteagana, douquitu ta esquintzecco zan guzti guztia Jaunari. Eguiquera onetatic ezagutu zatequian celango mirariae eguingo cituzan Jaungoicoac Mariagan, ain gastetatic artu ebanean bere serbitzaritzat.

Birgiña santea astu izan zan beste dontzellen artean guztien atseguin andiagaz, ta laster aci zan ezaugarriac emoten Jaungoicoaren eche aretan, bera zala onen eguiazco ta espirituzco templu bicia. An icasi eban chit ondo irunten aria, josten sacerdoteen ornamentu ta templuraco beste jantziac, baita icasi cituzan echejostac, ta onelan eguin eutsan guero bere Seme doatsuari araco jantzi oso edo jostura bagacoa. Icasí bere cituzan ebreatarren icasmenac, ta iracuster: cituzan sarritan contu andiagaz Escritura sagraduac, ta gogoratu atseguinez eurretan sarratuten diran mirariae, ceintzuec adituten cituzan guztiz ondo ceruco arguitasunagaz. Inoiz bere ez egoan alperric, zan issilla, barbaric eguiten ez ebala bearzarian baño eta orduan bere errezpetoz ta itzaltasunagaz; bere umilldade ta bacartasunaren amodio andiagaz, ta beste birtute guztia mallarie ereguienean eucasalaco beraganduten cituzan

guztien beguiac, ta ostu bere bai euren biotzac: eta onelan cirudian gueiago cerutic jatsia, munduan jaio ta acia baño. Bere barau andi, bacartasun, issilltasun ta baqueagaz batzen zan Jaungoicoaren gogoraciño goratuenetan, ta alan Jau-nae bisitau ta erregaletan eban bere arguitasunacaz; sarritan aingueruac aguertu jacozan, eta batzuetan ecarten eutsen janaria, ez munducoe eguiina, ezpada cerucoa. Onelango bicitzagaz bici zan amaica urte bete arte: dempora onetan ill ciran bere gurasoac guztiz zaartuta, beste seme ez alabaric cuqui baga bera baño.

Maria Birgiñea egoala esan dan leguez templuan, Espiritu-Santuac emoten eutsan amodio issiotuagaz, eguin eban garbitasuneco esquintzaria beti betico izanic lenengoa munduan onelango esquintzariric eguin ebana, ta ceine ri jarraituco eutsen guero dontzella ascoc, guragoco ebenac galdu euren bicitzea garbitasuna galdu baño lenago: eta erra cergaitic deituten jacon Dontzellen Dontzellea, guztien eracusle ta aguintaria leguez. Bada, eguia izan arren Leguezaarrian bici izan ciriala asco garbitasuna galdu baga, da gauza ciurra ta jaquina, ez zala inor izan garbitasuneco esquintzariric edo botua eguin eutsanic Jaungoicoari, eta bai gure Andra Maria izan zala lenengoa; cergaitic gloria au egoan gordeta Mariarentzat bacarric, batuteco dontzellatasunaren lorea amaren frutuagaz.

---

## JAUNGOICOAREN SEMEA SORTUTEN DA MARIAREN SABELEAN.

Maria eldu zanean ezconduteco urtectara otu jaquen sacerdoteai Birgiña onec bere artu eiala senarra, besteac eguiten eben leguez. Baña berac ezagutu ebanean bere ezcontziagaz cerbait erabagui ebeela, esan eutsen umilltasunic andienagaz, celan izan cein litzaten; bada bere gurasoac esquini izan ebela Jaungoicoari, eta berac bere eguin ebala dontzellatasuneco esquintzaria. Guztiac mirariztu ciran entzunic gauza barri au, ta orduan itundu ciran obeto izango etezan, orduan oi zan leguez, ezcondutea eleizguizon bategaz, modu onetan bere laguntzagaz irauin al-izan leian templuraco lanetan; baña laster conturatu cirian izan cein litzategueala, bada bere gurasoen jaubeguei bacarra zan leguez, legueac aguinduten eban, nai ta naiez ezcondu bear ebala bere aide edo seindeagaz. Onetaraco zucendu ciran jaquitera Jaunagana, ta onec erantzun eutsen, batu ceitiala batzar baten Jerusalenen egozan David-en jatorriceo guztiac, icusteco onelan ceineri urteten eutsan Mariagaz esconduteco suerteac; eta Mariac berac euqui eban Jaunaren adierazote edo abisua esaten ce, egon cedilla sacerdoteen esanean, ta ez cedilla bildurtu bada berac gordeco ebala. Suerte doatsu onec urten eutsan Joseri, cein zan Belengo semea, arotza, edade nagucicoa

ta santua, beti gorde izan ebana garbitasuneco birtute ederra, bear ta gauza egoquia zan leguez ain emaste garbi ta santuaren senar izateco. Esposatu ciran Mariac amairu urte ta iru illabete eucazanecan, eta sacerdoteac emon eutsen bere senarrari, besa gorde ta beragaitic beguiratu eian.

Orduan José ta María biurtu cirean Nazaretera eta bici cirean Mariari gurasoac ichi eutsen echean. Emen egoala Birgiña guztiz Santea, eldu zan araco ordu doatsua, ceinetan erabaguita eucan Jaungoicoac artutea Mariaren errai garbietan gure araguizeco jantzia, eta ara or, bere erregulecuan egoala Jaungoicoaren gogoraciño alt-suenetan, aguertu jacon aingueru San Gabriel gauza ain miragarria adierazoten, ta errezepto ta umilltasun andiagaz esan eutsan: *Jaungoicoac gorde zaizala, graziaz betea: Jauna da zugaz, eta zuzara bedeincatea andra guztien artean.* Berba onec entzunagaz icaratu zan Birgiña, ez menturaz ainguerua icusten ebalaco, bada au icustea etzan beretzat gauza barria, baña bai emoten eutsazan alabantzacgaitic, ceintzuen duin ez eban uste zala. Baña aingueruac alaitu eban, esanagaz ez cedula bildurtu, bada aurquitu izan ebala gracia Jaunaren beguietan, eta alan bere sabelean sortuco zala seme bat, ceineri iminico eutsan icena Jesus, au da, Salbaguillea, ta izango zala Aita Beticoaren Semea, icentetan eutsazala gañera Jesusec izango cituzan anditasun ta beti betico cserbideac. Orduan Mariac esan eutsan aingue-

ruari: ¿Celan izango da ori, ezbadot ezagututen ta ezagutuco bere ezbadot guizonie orretaraco? Ta aingueruac orduan ciurpetu edo segurutu eban, celan ez eban parteric euquico beragaz guizonec, ta ez ebala izango calteric bere dontzellatasunac, bada Espiritu-Santua etorrico zala beragana, ta onen bitartez ta eguitez bacarric, sortuco zala bere sabelean Aita Jaungoicoaren Semea: Esan eutsan Isabel bere lenguciñagaz jaso zana, ceinegan, izan arren zaarra ta seiñie sortu ecin leiqueana edo emasolla, alan bere sortu izan zala eta egoala seiñdun; bada Jaungoicoarentzat ezdago ecinquizunic, eta alan berac gura dabenan seiñe eguiten daben leguez emasollac, eguin leiqueala dontzelleac bere dontzellatasuna galdu baga.

Ciurtasun onegaz, Jaunari obedidu guraric ta beeraturic bere umilltasunean, emon eutsan baie-tza aingueruari, esanagaz araco cerua atseguindu eta luurra santutu cituzan berba estitzuac: *Ara emen Jaunaren mendecoa, eguin bedi nigan bere borondatea zuc esan dozun leguez.* Eta une aretan sortu zan bere errai garbietan Aita Beticoaren Semea, ta alan izan zan Jaungoicoaren Ama eguiascoa, ta ceru ta lurreco erreguiña.

Bete zanean mirari andi au, iguitu ta sendaturic Birgiña Ama beragana etorri zan Espiritu-Santuac emon eutsazan gracia ugariacaz, urten eban bertatic Isabel bere lenguciña bisitau ta serbietara. Maria bici zan erritic Isabel bici zan echera, Judaeco mendietan, egozan ogueta bes-

amabi legoa baño gueiago. Arin igaro eban bide ain luce ta nequetzua, cergaitic bere caridade andiac emoten eutsazan indarrac, ta gueiago bere sabelean eroian frutu bedeincatuac. Sartu zan Zacarias-en echean, agur eguin eutsan Isabeleric beronec baño lenago, emoten eusecula onegaz bere umilltasunaren ejemplua. Mariaren berbac entzun cituzan Isabelen erraietan egoan ume Juanec, eta arturic orduan santificaciñoeco espiritua, ta ezaguturic Jauna egoala Mariaren erraietan, ebilen saltoca pocez beteric amaren sabelean, adierazoten ebala onelan berbacaz esan ecin ebana. Bere barruco semearen iguitasun ta pozagaz aditu eban Isabelec Jaungoicoaren Semearen Guizon-eguite edo Encarnaciñoeco misterioa, ta arguituric igarlearen espirituagaz, esan eutsan Ama Birgiñeari: «Bedeincatea zara zu andra guztien artean ta bedeincatua da zure sabeleco frutua. ¿Eta nundie merecidu izan dot nie neure Jaunaren Ama nigana etortea?» Ta oñezaz gañera esan eutsazan beste gauza asco Birgiñearen alabantzan. Ezaguturic orduan Mariac Jaunac eguin izan eutsazan gracia ta mesede guztiac cantau eban *Magnificat* derichon cantua, ceinec daucazan berbac baño mirari gueiago. Ta egon ezquero iru illabete inguruan Isabelari lagunduten, biurtu zan guero bere Nazareteco echera.

Josec, bere senar garbi ta santuac igaro cituzan emen atsecabe ta estutasun andiac, ezagutu ebanean Birgiña santea seiñdun egoala, berac onetan parteric euqui baga, batetic ez equialaco



cer eguin onen gañean leguea betetaco, ta bestetic lotzaririe ez emotiarin Andra ain oitura onetacuari ta menturaz errubaguea zanari; eta alan erabagui eban issillic alde eguin ta istea bacarric Maria, bada Josec ez-equian oraindiño celan sortu zan Jaungoicoaren Semea bere emazte garbiaren erraietan. Ez eutsan peña guichi emoten Mariaren biotz samurrari bere senar maiteac beragaitic igaroten cituzan naibagueac; baña ez eutsan aguertu gura izan beragan jaso zana, eguialaco ondo, dagozala mirari batzue edocein modutan aguertu bear ez direanac; eta alan Jaunaren escuetan guztia ichita, erregututen eutzan ichoropenic sendoenagaz, arren atseguindu eguiala bere senarraren biotz naibaguetua. Entzun cituzan Jaunac erregu onec, ta bialdu eban Josegana aingueru bat, ceinec azaldu eutsan mirari au esanagaz: «Jose, Daviden semea, ez eguizu susmoric »ez bildurric euqui artu ta euquiteco ceure echean »Maria ceure emaztea; bada bere sabelean sortu »dana, izan da Espiritu-Santuaren eguiqueraz. »Alan beragandic jaioco da seme bat, ceineri »iminico deutzazun icena Jesus; bada bera izan- »go da salbauc dabena bere erria, ateriagaz pe- »catuetatic.» Arguitze onegaz amaitu ciran Josen bildurrac, atseguindu zan bere biotza, ta aci zan leen baño erreberencia andiangoagaz beguiratu ta lagunduten Maria Birgiñeari, bada ordurarte santatzat eucana, ezagutu eban Jaungoicoaren Ama zala.

## JESUSEN JAIOTZEA MARIA

### BIRGIÑEAGANDIC ETA ONEN EGUIQUIZUN TA NEQUEAC.

Octoviano Erromaco Emperadoreac aguindu eutsen bere mempeco guztiai iminteco buruzardea edo empadronamentua bacocho jaio zan errian, eta Jose Belengo semea zan leguez, joan bear izan eban ara Mariagaz aguindu au betetaco. Egoan Orduan Maria Birgiñea seiñdun bederatzigarren illabetean eta orregaitic seiñguintzaco egunetan, eta alan igaro bear izan cituzan neque guztiz andiac joan bear ebalaco bere senarragaz Nazaretetic Belenera neguco dempora gogorrean. Igaro cituezan senar-emazte santuac bide nequetu onetan trabaju edo erasgueta ondoez asco, zalaco dempora otza, bide lucea ta euren ezeuquia andia, eta Maria Birgiñia gaste ta biguna, baña alan da guzti bere igaroten cituezan pena ta neque guztia pocic, cergaitic Mariae eucan bere sabelean munduco gozotasun ta erregalua.

Eldu ciranean Belenera ez eben aurquitu noc ostaturic emon. Joan ciran bada coba edo chabola batera etzateco, cein egoan erriric campora murallai eutzala, non egoten cirian abereac eta bidasti ezeuquiac; eta chabola uts ta otz onetan emon eban arguitara Maria Birgiñeac, dolore barga, Jaungoico Guizon-eguina, abenduaren ogueta

bosteco gaberdian, eta baturic onetaraco eucazan seiñoiacaz, imini eban asca baten, adorau eban Jaungoicotzat, erreberenciau Jauntzat eta laztandu semea leguez. ¡Umiltasuneco guertaera arrigarria, benetan, eta cer icasi asco daucana guztientzat, emon izan eutsan munduari, gauza guztien Jaun ta jabeac, ceru ta lurreco Erregueac, Jaungoico ta Guizon eguiazcoac, jaio zanean chabola baten ta etzun asca baten lasto gañean! Bertatic, aingueruac zabalduric barri on au inguru aretan, etorri ciran arzainac Ume Jesus icustera, ta biurtu ciran euren choboletara atseguinezco cantac cantetan. Jaio ta zortzigarren eguncan, atai edo portale beratan, eguin zan circunciciñoia, izanic ministroa San Jose, San Bernardoc diñoanez eta orduan imini eutsen icena Jesus, ceinec esan gura daben Salbaguillea.

Izar barri batec zucenduta, etorri ciran guero Erregue Magoac, eta adorau cituezan Semea ta bere Ama, ta esquiniric urrea, intzentzua ta mirra, eracutzi eben Ume Jaungoicoagan sinistuten ebeela. Beteric jaio zanetic berrogueti egun, joan zan Aingueruen Erreguiña Jerusalenera, Jaungoicoac emonico emacumerdien leguea betetan eta presentetan bere Seme bacarra Jaunari. Legue orrec eragozten eutsen emacumeai cartuten templuan seiñguintzatic berrogueti egun igaro baga, jaioten zana semea bazan, eta larogueti egun igaro arte alabea izan ezquero. Egun onec igaro ezquero amac, joan bear eban temp'lura garbituten ta esquini bildotz bat, edo usocume li

ezeuquia bazan; Mariac bada esquini cituzan bere Purificaciñoan usocume bi, ezeuquia zan leguez, eracusten ebala bere umilltasuna leguea betetan, berac cer garbitu ezbecean bere.

Mariac, esan dan leguez presentan zanean templuan, euqui cituzan gauza barri bi, bata atseguinezcoa ta naibaguezcoa bestea: atseguinezcoa icusi ebanean bere Seme bedeincatuaren gloria aguertuten zala munduan; bada Simeon santuac artu ebanian besoetan, adorau eban Jaungoicotzat eta iragarri eban munduaren argui ta Israelgo edertasun ta gloriatzat; ta araco Ana alargun beneragarriac, sarturic ordu aretan templuan, berba eguin eban goratuaz Jesusen anditasun ta miraariac, ceintzuec izan ciran Mariarentzat poz eta atseguinezco gueigarriac. Baña beste aldetic, dolorezco euehillo batec irago eban bere biotza, entzun eutsazanean Simeon santuari berba onec: «Ara emen Ume au, ceini munduac esetsico deustsan, ta asco izango dira jauciac eta jasoac *Berangaitic* Israelen; eta espata gogor batec iragoco dau bateric bestera zure arimea, guizon ascoen biotz escutuac aguertu deitecen.» Berba onecaz mindu jacon bere biotza, eta bere egun aretaco poz eta atseguinac biurtu ciran zamintasun eta bildur andi baten; eta oraindino gueiago Templuco eguizunac amaituta, igues eguin bear izan ebanean arin Egiptora, librauteco bere Semea Erodes erregue gaistoaren escuetatic, ceinec ill gura izan eban bere Jesus maitea. Bada ainguerua aguerturic San Joseri lotan egoala,

aguindu eutsan jagui cedilla bertatic, eta arturic Ama eta Semea joan ceiteala Egiptora, non egon beareo ebeen berac abisau arte. Alan eguin eban Josec; eta igaroaz bide luce, bacar ta basamortu arec neque ta pena andiacaz, ardura guztiz andi ta bildurragaz, eldu ciran Egiptora, ta bici ciran gaur Matarca deituten jacon lecuán, Eliópolis ta Babilonia bitartean.

Emen bici ciran ezeuqui ta premina guztiz andiacaz, cirialaco arrotzac ta ez-ezagunac lecu aretan, bildurrez ta sosegu baga; cergaitic Ume a Jaunac gordeco eban icharopena beuqueen bere, beraganaco amodioac emoten eutsen bildurra. Onezaz ostean Ama Birgiñiari atsecabaric gueien emoten eutsana zan, erri arec bici ciran ichutasunean icustea; bada ichiric Jaungoico eguiazcoa, adoretan cituezan Jaungoicotzat euren escuacaz eguinico taioac ta baita cocodrilo ta sugueac bere ta onen bitartez demoniñoac, ceintsuec euqueezan engañauta. Egon ciran Egipton Erodes ill arte, eta orduan, Joseri leen aguertu jacon aingueruac aguinduta, biurtu ciran Nazaretera, nondic joaten ciran Jerusalenera urtean bein.

Izanic Jesus amabi urtecoa, besteetar eguiten oi-eban leguez, joan zan bere gurasoacaz Nazaretic Jerusalengo templura, eta onec echeruntz biurtu cireanean guelditu zan Jesus Jerusalenen euren barri baga; ibili ciran bere billa iru egunean cizpuru ta negar andiacaz, ta azquenez aurquitu eben templuan bertaco jaquitunen erdian, itunduten onei ta erantzuten eurac eguiten eu-

tseezan itaunei. Ieusirie alan Amac dirautso Jesusi: ¿Semea, cergaitic eguin dozu orrelan, jaquinic zure Aita ta ni gabicela zure billa dolore andiacaz? Eta Jaunac erantzun eutsan: ¿Certaraco billatu nozue? Ez cenquian jardun bear nebala neure Aitari jaocozan lanetan? Berba onec, an egozanac aditu ezbacituezan bere, Ama Birgiñeac artu ta gorde cituzan bere barruan, ezaguturic eurretan egozan mirariac. Emendic ogueta amar urte bete artean, bici izan zan Jesus bere Amagaz ta San Josegaz, lagundu, obedidu eta serbiduten cituzala semeric onena leguez bere Ama guztiz maite ta eguiazcoa ta San Jose bere aita ordeco ta Echaide sagradu onen jaolatzat Jaungoicoac autu izan ebana. Mempetasun onetatic atera bear dogu Semearen umilltasuna ta Amaren escelencia: cergaitic ezdago umilltasun andiagoric Jaungoicoa bera, criaturiaren mempean eta agunduan egotea baño; ez anditasun eta soberandia andiagoric criaturiac bere Jaungoico ta Eguilleari agundutea baño, eta au guztiau eugui eban Ama Birgiñeac bere Semeac ogueta amar urte eucazan arte.

## AMA BIRGIÑEAREN DOLOREAC BERE

### SEMEAREN PASIÑO TA ERIOTZAN.

Ogueta bederatzi urte ta amairu egun bete jacoanean, joan zan Jesus bere Ama ganic Betaborara, tan San Juanec bateatu eban Jordango

ibaian, ez Jesusec eucalaco bateatu bearric, ezpada urari ezarteco pecatuac parcatuteco birtutea Bateoco Sacramentuan. Bereala andie sartu zan basamortuan, non eguin eban barau berrogei egunean, ta izanic tentaua, goitu eban arerioa, ta guero urten eban andie ceruco Maisua leguez, iracasten bere dotriña santua; ta baturic discipuluac eguin cituzan mirari guztiz asco, bere Eban-gelioan iracusten dirau leguez. Baña Jesus ibili arren lecu bateric bestera iracasten guizonai ceruco icas men ederra, Birgiña santeac lagunduten eutsan sarritan. Egon zan Jesusegaz ta bere discipuluecaz Cana Galileaco estegüetan, ta paltauric ardaoa, ez zan paltau izan Mariaren erruquitasuna, bada escatu eutsan bere Seme doatsuari emon eguiuela palta eben ardaoa, lotzaturic guelditu ez cedizan ezcon-barriac; ta alan eguin eban Jesucristo gure Erredentoreac, ceinec ez deutsan ucatuten bere Amari, escatuten deutsan gauzaric: eta au zan Jesusec lenengo eguin eban miraria, biurturic ura ardao izatera, eracusten ebala onelan bera zala gauza guztion Jaun bacarra.

Urreratu zanean ordua ceinetan Jaunac erabagui eban emotea bere bicitzea gu erosi, ta Aita Beticoagaz ta gugaz baqueac eguiteco, celebrau eban bere Apostoluecaz araco azquenengo ta mirarizeco aparia, ceinetan ichi euscuzan Altaraco mai santuan bere Gorputza janaritzat ta bere Odola edaritzat. Bere Amac bere celebrau eban Pascoaparia beste andra santacaz eche aretan, baña beste lecu baten. Aparia amaituta guero

joan zan Jesus Ortu santura nun eguingo eben preso, gueraturic Birgiñea eche aretan ardura andiagaz, icharoten bere Semearen pasiñoa.

Jaquin ebanean Maria Birgiñeac Judeguac eguin ebela bere Semea preso eta erabillela auciépalle bateric bestera, urten eban echetic ta jarraitu eutsan beste emacumeacaz Calbarioco mendiraño. Ecin azaldu leique berbacaz celango pena, zamintasun ta atsecabeac igaroco cituzan bere biotzean, icusi ebanean bere Seme maitea ain gaiztratauta impernuco otso amorrotu arec urratu eutsela bere gorputz sagradua bildotz otsanari leguez. Ceimbat eta andiagoa izaten dan gauza bateri euquiten jacon amodioa, andiagoa izaten da beragaitic artuten dan penia. Maria Birgiñeac eutsan bada Jesucristuri amodio ecin andiagoa, zalaco bere Semea, eta berea bacarric eta guztia, guizonaren lagantasun baga sortua, ta zalaco semeric onena, santuena, gracia ta doez beteena, maitegarriena, ta guztien ganetic, zalaco Jaungoicoa; eta alde onetatic ezagututen eban arguiro merecidu ebala amodio neurribaguea, criatura batec euqui izan albaleique. Augaitic Birgiñeac Jesusi eutsan amodioa, zan ama guztia erabatera euren semeai deutsen baño andiagoa, Santu eta Aingueru guztia Jaungoicoari deutsen baño andiagoa. Icusi ebanean bada arerioric gogorrenen escuetan aimbeste maite eban Semea, icusi ebanean eriotzara condenauta, guztia izainduric, zaurituric eta guizonaren echura baga, artu eban penia izan zan berari eutsan



amodioaren parecoa eta berbacaz adierazo ecin leiquean bestecoa. Augaitic deituten jaco Martirien Erreguina, martiri guztiaic baño pena andiangoac igaro cituzalaco.

Baña izan arren ecin andiangoac Mariaren pena eta atsecabeac, etzan izan chiquiagoa bere iraupen ta cendotasuna. Bere biotza ta borondatea egozan Jaungoicoarenagaz bat eguinda; ta Jaungoicoac erabaguita eucan leguez ill cedilla Jesucristo gure pecatuen paracaiñoraco, bardin Mariac bere gura izan eban biotz biotzetie ta borondate osoagaz Jesusen eriotzea; eta alan egon zan Curutzearen ondoan bere biotza erdibituta, baño zutunic, coloma cendo bat leguez, esquinitzen Aita Beticoari bere Semearen sacrificioa, ta erre gututen arren bere odolagaitic parcatu eguizala munduco pecatuac, eta zabaldu eizala guztioentzaco ceruco atea.

Onelan Ama erruquiorrac lagundu eutsan Semeari onen pasiñoeco dolore ta lotzarietan. Eta erruquitasun au Jaunac gura izan ebalaco saristau, esan eutsazan berba amodiozco onec: *Andrea*, orra zure Semea; ta guero bere discipuluari: *Orra zure Ama*, emonagaz semetzat San Juan, ceinec ordu aretaric artu eban amatzat, lagundu, serbidu ta beguiratuteco berari seme eguiazco bat baltizan leguez; bada simistuten danez, orduraco ill zan San Jose bere senar garbi ta gozua. Guelditu zan trucada onegaz Birgina guztiz garbia iragoric dolorezco cuchillo bategaz, ezagututen ebalaco cein beste bat zan galduten eban Seme eguiazcoa,

emon izan jacon seme-ordecoaren lecuan, ta cein amodio samurra eucan beragaz Seme Jesusec, bada egon arren egoan moduan, curutzean esqueguiric, dolore parebagacoen erdian, eztzan aaztuten beragaz. Illic icusi ebanean Semea, beragaz batera emongo eban arimea Maria Birgiñeac, Jaunac sendatu ezbalen naturaleciaz ganetico indarracaz. Illda guero Semeari emon eutsen lantzadiac, ez eban guichiago irago Amaren biotza cein Seme illaren bularra. Guero jatsi eben gorputz sagradua curutzetic ta Maria Birgiñeac artu eban bere besoetan, ain sentimentu andiagaz cein ecin azaldu leique berbacaz, ez ezagutu adimengaz. Azquenez Jesus obipetu ebenean biurtu zan Maria San Juan eta beste andra erruquiorracaz Calbariotic Juan Marcosen.echera, non celebrau eben Pascoaparia icharoten bere Semearen biztuerea.

Iru egun igaroric Birgiña erruquiorrac bacartade ta esturarie andienean, irugarren egunean biztu zan Jesus, ta aguertu jacon iñori baño lenago bere Amari, beste iñoc baño gueiago merecidu izan ebalaco aguerquizun doutsu au, ta icuste onegaz bere ordurarteco tristuraco negarrac biurtu ciran atseguinescoac izatera. Ecin azaldu ez aditu leique Ama Birgiñeac artu eban poza, icusi ebanean bere Semea eriotzea goituta, eta celango atseguina sentiduco eban lastandu ebanean, ta bere oñ ta escuetan nun eguin eutsanean. Onezaz ostean gñoc azaldu leiquez araco Limboan egon ciran arima santuac emongo eu-

tseezan esquer eta alabantzat, izanic bera bitarteco ta Jaunaren Ama, eñen eriotziagaz librauac izan ciran presondegui aretatic? —

Biztu ta guero berrogei egunean egon zan Jesus munduan. Eta sinistuteco da bitarte orretan sarri bisitauco ebala bere Ama, ta atseguindu ta poztuco ebala bere berbacaz. Baita ez cirean izango chiquiac Apostolu ta beste cristinauac emongo eutsezan ezquerrac ta alabantzac bere Semearen gloriagaitic, ta berac segurutu ta sendatuco cituzalaco Jesusen biztueraco sinismenean. Berrogeigarren egunean aguertu jaquen azque- nez bere Ama ta discipuluai, ta eroan cituzan beragaz Olibeteco mendira, nondic, emonda bere bedeincaciñoa, poz, gloria ta magestade andiagaz, igo eban cerura, gueraturic Birgiñea pozago Semearen gloriagaitic bere bacartadeagaitic triste baño.

Ama Birgiñea ta Apostoluac biurturic guero Apalteguira, egon ciran oraciñoan icharoten Espiritu-Santuaren etorreriari, ta au etorri zanean euren gañera, artu cituzan Maria Birgiñeac beste guztia baño gracia ta doe ugariagoac, cergaitic beronen prestaerea zalaco besteena baño andi- goa, ta onezaz gañera gueiago merecidu ebalaco izanic Jaunaren Ama.

## MARIA BIRGIÑEAREN LANAC BERE

### SEMEA CERURATU EZQUERO.

Guero bici zan Maria Birgiñea Jerusalemen, jarduten zala Jaungoicoaren gogoraciñoe altsuenetan, ta bere araguiagaz jantzirie Jesusec eguin cituzan mirariac gomutetan ta euracgaitie Jaungoicoa alabetan, artuten ebala sarritan Altaraco mai santuan Jaunaren gorputza beste cristinau fielacaz; bada besteac artuten eben ezquero ¿ceimbat errazoe andiagoagaz ez eban artuco besteac baño obeto ezagututen beeban Jaunaren anditasuna ta prestaera gueiago euquiten beban?

Baita jardunten zan besititetan ta beacurtuten edo erreberencietan araco lecu santuac, ceintzuec bere Semeac consagrau cituzan bere oñatz ta eguite miragarrizcoacaz; eta baita bere ebilen zucenduten Jaunaren asiqueraco Eleiza barria, cein asi zan landaratu ta zabal duten munduan; cergaitie bera zan iracatsi ta azalduten eutsezana Apostoluai Jesucristoren guizon-eguite, jaiotza, circunsciciñoe ta ume demporaco mirariac; bera zan bere oraciñoe, bicitza Jaungoicozco ta berba cerucoacaz aurreratu, sendatu ta emoten eutsena guztiai laguntasuna; bera zan, bera icusiagaz baccarie, atseguinduten cituzana biotz larrituac, zucendu erabagaco gurariac, guichitu ta quendu araguiaren quescac, sendatu argalac, altzau jauziac, sendoagotu sendoac eta biurtu bide onera peccariac.

Bere amodioa guztientzaco zan guztiz issio-  
tua, umilldada andia, icharopena premiña ta  
persecuciñoetan goitu ecin ceiqueana, ta bera  
icusiaz bacarric urrinduten ciran tristeza ta bil-  
dur charrac.

Azquenez, bere jaquituriagaz emoten eutsa-  
zan iracatzia Eleiza guztari. Zan egusqui bat,  
arguitasuna emoten ebana munduan; Jaungoi-  
cozco mirari bat, Birgiña bat eracusten ebana  
bere arpeguian Jaunaren Ama zana, ain mages-  
tade andi ta graciagaz betea ce, guztia euquen  
guraria bera icusteco, ta icusteagaitic beste baga,  
joaten ciran asco Jerusalenera. Orregaitic San  
Ignacioc carta baten esaten eutsan San Juan  
Evangelisteari: ¿cein cristinau fiel ta gure fede ta  
erliguiño santuco adisquide izango da, icusi ta  
berba eguin gura ezdabena araco merecidu izan  
dabenagaz Jaungoicoaren Semea bere erraietan  
sortutea ta arguitara emotea? San Dionisio Areo-  
pagocoa, San Pabloen discipulua, joan zan Ate-  
nastic Jerusalenera, Andra Maria icustera, ta  
icusi ebanean bere dignidade edo altzutasuna,  
persona ilcorrac euqui aleiquean baño andiagoa,  
artu eban gozotasun guztiz miragarrizco bat, ta  
guztiz mirarituric esaten eban, euquico ebala  
Jaungoicotzat, ta adorau bere bai, jaquin ezbalen  
fedearen bitartez ez zala Jaungoicoa: ta egozala  
Maria Birgiñearen inguruan ceimbatu bere ecin  
leiquezan beste aingueru.

Baita bere Maria Birgiña egon zan dempora  
apur baten Efeso-co urian, Asian, San Juan

Ebangelisteagaz batera, isuri edo zabalduten cituzala lecu guztietara bere arguitasunac, eta emoten eutsela beragaz ebicen guztiai arimaco osasun ta bicitza.

## MARIA BIRGIÑEAPEN ERIOTZA TA CERURA IGOEREA.

Igaroric, bada, urte asco esan dan leguez Eleiza guztico atseguin ta oneraco; eldu zanean edade andira; icusirie bere Semearen sinismen ta icena zabaldu zala munduan; amodio issiotuagaz ta urturie bera icusteco gurariagaz, escatu eutsan gogotic librau eguiala, arren, emengo bicitzatic ta eruan cerura bere arpegui doatsua gocetan. Entzunic Semeac Amaren escari erruquizeco onec, bialdu eutsan aingueru bat eriotzearen albizteagaz, eta arturie Amac barri on au arimaco poz andiagaz, iragarri eutsan bere seme Ebangelisteari. Onec bere adierazo eutsen Jerusalenen egozan beste cristinauai, ta zabalduric bertatic inguru aretan egozan cristinauen artean, etorri ciran asco Jerusalenera ta batu Siongo mendi santuan, araco Jesucristoc bere discipuluecaz apaldu eban echean, eta ceinetan imini eban bere Gorputz sagradua Altaraco mai santuan bere Eleiza guztico janaritzat, eta Espiritu-Santua bere susco miñacaz etorri jaquen lecuan. Ecarri cituezan cristinauac candelac; uientu usañezco asco, oiturea cuquen leguez, eta canta sagradu

asco cantetaco bere iragoera gloriosuan; eta mún-  
duco beste inguruetan prediquetan egozan asco,  
etorri izan ciran milagroz bere aurrera, eta baita  
beste cristinau asco bere Jaunari escatu izan eu-  
tsenac duin izateco icusi eijeen bere Amaren ce-  
rura iragoera doatsua.

Birgiña guztiz garbiac icusi ebanean araco  
laguntegui santu ta zorionecoa, guztiz asco poztu  
zan, ta emon eutsazan ezquerrac bere Seme be-  
deincatuari eguin izan eutsazan mesede bardin-  
bagueacgaitic, eta arpegui itzaltzuagaz esan eu-  
tsen aurrean egozanai: «Neure biotzeco maiteac,  
»nire Semeac ichi nenduan emen, zuecganaco  
»neucan amodioagaitic, eta zuen laguntzaraco.  
»Bere siniste santua dago zabalduric munduan.  
»Ceruco dotrina Jaungoicozcoaren prutua aci da.  
»Orregaitic, icusiric neure Jaunac ez dala premi-  
»nazcoa nire egon-bearra munduan emendic au-  
»rrera, ta erruquituric daucadan peneagaz bera  
»icusten ezdodalaco, entzun dituz nire escari ta  
»gurariaac, bicitza onetatic urtenda, bera icusi  
»daidan ceruan. Guelditu zaitece, bada, bearra  
»eguiteco bere gloriagaitic. Nic ichi arren, ez zai-  
»tuez isten nire biotzac: zuei deutsuedan amodio  
»andia, eroan ta euquico dot beti neugaz. Noa  
»cerura zuecgaitic erregututen.» Au esan da, al-  
debateratu zan oe baten, eta beguiraturic aurrean  
egozanai, euqueezala guztiaac escuetan candelac  
issiotuta, aguindu eutsen urreratu ceitezala guz-  
tiaac, emoteco bere bedeincaciñoa; ta au emonagaz  
batera escatu eutsan bere Semeari sendatu eiala

cerutic, ta emon eguinezala guero araco ceruco ondasunac iñoiz amaituco ezdiranac. .

Danac negarrez urtuten ciran Ama ain on ta erruquiorraren joaqueriagaz, eta berac poztuta esaten eutsen: «Jaungoicoagaz guelditu zaitece „neure seme guztiz maiteac, ez eguizue negar „eguin isten zaituedazalaco, ezpada poztu noiala- „co neure Seme maiteagana.» Guero agundu eutsen San Juani emoteco berac erabili izan cituzan tunica edo jantzi bi an egozan dontzella biri, ceintzue beragaz bici izan ciran dempora lucean. Bereala cerutic jatsi zan, aingueru ascoen laguntzagaz, bere Seme maitea, eta icusi ebanean bere Amac, biotzeco poz andiagaz esan eutsan: «Bedeincatuten zaitut, Jauna, bendiciñoeguztien „emollea ta argui guztien arguia; nire erraietan „guizon eguin izan zarealaco. Ondo ciurnago ni- „gan eguingo dala, zuc esan dozun guztia.» Au esanic, echun zan oean ta inguiratu zan bera, eta bertatic besoac gora jasoric, poz andiagaz icusteagaitic bere Semea, esan eutsan: «Eguin bedi nigan zuc esan dozuna» eta onegaz, loac artutean leguez, gaiso ez min baga, emon eutsan bere ari- mea araco Jaunari, ceini berac emon eutsan bere araguaia. Ill zan agostuaren amabosteco bezpera gabaz, berrogueta amazazpi urte Jesucristo bera- gandie jaio zanetic ta onen pasiñoetic ogueta iru- garren urtean, eucazanean irurogueta amabi urte baño oguetalau egun guichiago, gueienac di- ñoenez.

Seme bedeincatuac eroan eban cerura ain-



gueruen artean bere Ama doatsuaren arima guztiz garbia, non izan zan artua zorioneco guztien alabantzazco canta poz eta atseguinen artean mercedu izan eban leguez guztien Erreguiña ta euren Jaunaren Ama zana. Arritu ciran guztia bere edertasun, gloria ta magestadeagaz, icusirie ain aberatz ta apaindua aibeste birtute ta graciaz, bada bere arguitasunacaz illunduten cituzan beste santuenac, egusquia izarrenac leguez. An iminia izan zan coru aparteco baten, Aingueruenac baño gorago, bere Semearen escumatatic.

Ama Birgiña ill zan demporan, emon eben lurrean soñu guztiz estitzua bere arimeari cerura lagundu eutsen aingueruac, ta ez guichiago bere gorputz sagraduaren inguruan guelditu izan ciranac, entzuten cituezala euren soñu gozuac an egozan guztia. Apostolu ta Jaunaren discipuluac icusi ebeenean Birgiña illda, lurrean auspastu cirian eta samurtasun ta onerazpen andiagaz, mun eguin eutsen gorputz santuari, docantac cantau ta alabauagaz Jesusec artu izan eban araguiaren aragua, ta ceinetan Jaunac eguin cituzan aibeste mirari. Ungidu eben gorpua uientu ederracaz, orduan oituria zan leguez, ta batu icera garbi baten, zabalduric lora ta usain gozuac; baña onec guztioe emoten eben baño usain gozuagoa urtuten eban bere gorputzetic. Etorri ciran gaiso asco gorputz santua egoan lecura ta danac osatu ciran Ama Andra onen bitartez ta bere Semearen birtutez, ceinec emon eutsan osasuna munduari.

Zabaldu zanean eguna agostuaren amabos-  
tean, Apostolu santuac arturic euren sorbaldetan  
gorputz sagradua egoan andea, eroan eben uria-  
ren erditic Getsemanira, cantauaz eurac eta beste  
cristinauac Aingueruacaz batera alabantzac Ama  
Birgiñeari.

Judegu galdu ta lotzabagaco bat azartu zan  
escuac esarten andac lurrera botateco usteagaz;  
baña bere escuac, besoetatic ebaguita, guelditu  
ciran andan oratuta bere azartasunaren gastiguz.  
Ezagutu eban orduan itsu onec, peniagaz argui-  
turic, bere gaiztaqueria: negarrez escatu eban  
parcaciñoa eta jarichi eban; cergaitic San Pedroc  
aguindu eban bateratutea esqueguita egozan es-  
cuac beso mancuacaz, ta bereala guizona gueldi-  
tu zan osaturic gorputz ta ariman; bada egun ain  
donsu ta atseguinezco aretan Mariarentzaco,  
etzan egoquia inor guelditu cedin mesederic artu  
baga bere escuetatic. Eldu ciranean Getsemani-  
ra, ta obian gorputz santua iminteco demporan,  
an ciran negar ta cispuruac barriztetia, mun-  
eguite eta adoretea erreberencia andiagaz, begui-  
ric quendu бага biotza euquen lecutic. Azquenez  
imini eben gorputz sagradua obian, baña Apos-  
toluac ez eben andic alderic eguin; ezbada egon  
ciran obiaren inguruan iru egunean, entzuten  
aingueruen soñua ta alabetan Jaungoicoa euracaz  
batera.

Irugarren egunean etorri zan Santo Tomas  
Apostolua, cein ez zan aurquitu besteacaz Ama  
Birgiñearen eriotzan: gura izan eban icusi ta

erreberenciau gorputz santua, eta escatu eban zabaldu cedilla iminita egoan obia. Jaunac laquetu eban Apostolu santu au berandu etortea aguertu cedin cer jaso zan; bada zabaldu ebe-  
nean sepultura, ez zan an aurquitu gorputz sa-  
gradua, ezpada bacarric ondo iminita beragaz  
batu ciran icera ta beste eunac. Orduan zarratu-  
ric barriro obia, ceinetatic urteten eban usain  
gutziz gozuac, cerucoa gueiago cirudiana mun-  
ducoa baño, biurtu ciran guztia urira poz eta  
atseguin bardinbagueagaz, euquiric gauza ciur  
ta jaquintzat Mariaren gorputz guztiz santua ba-  
turic bere arimeagaz, biztua izan zala, ta cerura  
igo ebala.

Maria Birgiñea zan gorputz laburrecoa, colo-  
rea apur bat baltserana; ulea becartzua edo urre  
colorecoa, beguiac bici ta baltzac, zurra apur bat  
lucea, espanac ederrac ta estitzuac berbetan, ar-  
peguia lucea gueiago biribilla baño, escu ta atza-  
marrac luceac. Zan itsaltzu ta modutzua, ez buru  
erechi ez andiqueri zalea, tolezbague ta umilldea.  
Bere soñecoac ciran beti apainduria bagacoac ta  
colore berescodunac. Zan otzana, erechi oneco ta  
issilla. Biciric egoanean San Juan Ebangelisteac  
atera cituzan bere irudi batzuc, ta onetatic bat  
dago gaur Erroman, Santa Maria Nagucicoa deri-  
chon eleizan, non icusten diran bere azbeguiac,  
ta celan zan bere Semearen irudi edo antsecoa.

Ceruan dago, bada, orain gorputz ta arima  
gure Ama, eta an dago gure bitarteco ta Erre-  
guiña, atseguinduten direala bera icusteagaz ain-

gueruen coru ta ceruco zorioneco guztia. Bera da Jaungoicoaren graciën gordetzallea, ta zabaldu ta isuriten ditus gracia onec cristinau guztien artean, baña ugariago bere serbitzari diran ta beraganaco onerazpenagaz bici diranen artean. Da atea ceinetatic sartu beargarean gura badogu jarichi Jaunaren aurrean parcaciñoa ta erruquia; da graciaren Ama, dalaco Jesucristoren Ama, cein dan graciaren eguile ta emollea, ta ceinegaitic outzat artuten dituzan Jaungoicoac guizonen escari ta erreguac. Orregaitic daucagu guztioe Ama Birgiñearen debotoac izateco premiña, ez bacarric bere erraietaco odolagaz sortu zalaco Aita beticoaren Semea, cein dan gure on guztia, gure gurari eta zoriontasunaren betetasuna, ezpada baita jarichi ecingo doguzalaco tesoru ta ondasun onec lagunduten ezbadeuscu Birgiña guztiz santeac, ceinen escuetatic emoten deuscuzan Jaungoicoac ugaritasun andiagaz. Augaitic diño San Bernardoc, Jesucristo dala gure eta bere Aitaren arteco bitarteco bacarra, baña dan leguez Jaungoicoa, ta bicien ta illen Jueza, bear guenduala beste bitarteco bat guztia biguna, guztia gozua ta guztia erruquiorra, zucenduteco baragana gueure premiñetan bildur guichiagogaz ta icharopen sendoagogaz.

Alan dacuscugu dempora guztietan ta erreñu guztietan izan diran santu guztia, beti izan dirala arduratsuac Birgiña Maria alabadu, altsutu ta serbietan: batsuetan euren gogoagaz, gogaranduten bere anditasunac; sarritan euren miñacaz pre-

dicau ta eracusten bere mirariac; ascoc escribiduten bere escelenciac, ta danac euren bicitzagaz jarraituten beronen bicitza Jaungoicozcoari, Jaungoicoac imini izan ebalaco munduco ispillu ta ejemplutzat. Orregaitic, ceimbat eta santu andiagoac izan diran, aibat eta debotoagoac izan dira Birgiña gloriatzu onegaz.

Eleizaco eracusle ta santuac eracusten dabe, dala Jaungoicoaren aparteco gracia ta mesedea eta salbaciñoeco ezaugarria, euquitea Birgiñeari berarizeo onerazpena. Onetaraco zucendu begara Mariagana beti confiantza osoagaz, eguin beronen icenean serbicioren batzuc, artu berau bitarteco ta Amatzat, eta jarraitu beronen birtute ederrai; bada da erruquiaren Ama, eta ez da iñoiz guelditu lotzaturic beronegan ichoropena euqui dabenic. Orregaitic San Bernardo bere deboto guztiz andiac diño: «Issilldu bedi zure erruquitasuna. ¡O Birgiña guztiz doatsua! iñor badago artu baga zure mesederic, bere premiñetan escatu izan deutzunean.» Eta santu onec beronec alaitu ta aurrerazpidea emoten deuscu guztioi, euqui daiogun Mariari debociño apartecoa, eta zucendu gaitezcan beragana gueure premiña guztietan, berba onecaz: «Zu, mundu onetaco olatu, tuen artean itoaguinean zabiltzana, gura ez badozu ondatn, ez eguizuz quendu beguiac zucentzalla ta izar onegandic. Jasoten badira essetsi edo leutaciñoeco aisiac, eta bazaroace apurtuten estura edo larritasuneco achera, beguiratu izarrari, eta deitu Mariari. Zure arimaco ontzichua

„dagoanean ondatutea arrizeuan dirugoce edo  
„loiqueriagaitic, beguiratu Mariari. Ceure utze-  
„guite edo pecatuen astuntasunagaz eta contzen-  
„tziaren quezca ta ichusitasunagaz aazten bazara  
„itoten, eta Jaungoicoaren juicioagaz, ta beroni  
„emon bear deutzazun eontu eiatzagaz estutu ta  
„bildurtuten bazara, gogoratu Mariagaz, deitu  
„Mariari. Ez dedilla aldendu zure aotic bere icena,  
„zure biotzetie beraganaco amodioa; eta jarichi  
„daiquezuzan beragandie ceure escariae, jarraitu  
„eguzu bere bicitzaco ejempluai; cergaitie berari  
„jarraituaz, ez dozu urteten ceruco bidetic, berari  
„erregutuagaz, ez dozu icharopena galduco; be-  
„ragaz gogoratuten bazara, ez dozu utz eguingo;  
„berac bazaucaz ez zara jausico; berac escudatu-  
„ten bazaituz, ez dozu bildurric izango; bera zu-  
„centzalle izan ezquero, ez zara aspertuco, eta  
„bera badozu zure alde, elduco zara beti betico  
„atseguintasuneco ceru ederrera.» Au guztiau da  
San Bernardoc diñoana. Da bada segurua, Birgi-  
ña guztiz garbi ta Ama erruquitzu onec artuten  
dituzala bere egapean abegui onagaz, ta escuda-  
tuten dituzala aparteco ardura ta erruqui amo-  
diotzuagaz beragana zucenduten diran guztia,  
eta onezaz ostean eguiten deutseezala berarizco  
mesede ta erregaluac.

---

## MARIA BIRGIÑEAREN MIRARIAC.

Maria Birgiñeagandic artu izan diran arimaco ondasun ta mesedeac, eta bere bitartez Jaungoicoac eguin dituzan mirariac, ain dira guztiz asco ta andiac ce, azaldu bear balira eurac banaan banaan, beasco litzaquez liburu asco: orregaitie ez dira emen iminico batzue baño.

San Gregorio Taumaturgo, Neocesareaco Obispo Jaunari aguertujacon, eta bialdu eutsan San Juan Ebangelistea iracatsi eguion cer sinistu ta cer predicau bear eban trinidadede edo Irutasun Santuco mirariaren gañean. Gozatu ta poztu eban San Martin, aguertu jaconean beste dontzella ascoen laguntasunagaz. Lagundu eutsan eriotzaco orduan San Cirilori, Nestorio eregiaren contra jaguita aspiratu eta goitu ebalaco. San Juan Damascenocuari biurtu eutzan bere escua, erregue gentil batec ebagui eutsana guzurrezco salaciño bategaitie, eta osatze onen ezaugarriraco guelditu jacon santu oni ari bat, escua besoagaz bat eguizan lecuan. San Gregorio andiac eruan eban procesiñoan San Lucasec atera eban Ama Birgiñearen irudia, eta bigundu eban Jaunaren aserrea, ta gueratu zan araco peste bildurgarria, aimbeste triscantza eguiten cituzana Erromacourian, ta San Gregorioe bialdu eutsan guero doe parebagea leguez bere adisquide San Leandro, Sebillaco Arzobispoari, Mariaren irudi au, cein dagoan orain Guadalupen, non eguiten dituzan

aimbat mirari, ta ceintzuecgaitic erreberencietan dan lecu sagradu au, ez bacarric Españan, baita mundu guztian bere. San Ildefonso Toledoco Arzobispoac escudatu edo defendidu eban biotz andi, celatasun ta errazoe andiacaz Mariaren garbitasun eta dontzellatasuna, ereje batzue ucatuten eutsena, eta Birgiña guztiz santeac, cerutic etorrira, aguertu jacon uri artaco Eleizan, ta emon eutsan bere escuacaz mecia esateco casulla eder bat, ceinegaz gueratu zan lurrean ceruco zorioneco bat eguinic.

Ruperto, Tuiceuse-co Abadeac, aditze laburrecoa zan leguez, ez eban uste al-izango cituzala aditu, ez gomutau bere ondo, liburu sagraduetan zarratuten diran mirariac, baña jarichi eban Birgiñeagandic jaquituria ta icasmeneco arguitasun ain andia ece, izan zan bere demporaco guzionic jaquitun ta arguitzuena, alan bicitzan cein eriotzan, mirari ascogaz. Mesede au berau arta eban Alberto Magno doatsuac, Santo Domingoren ordenacuac, eta Santo Tomás Eleizaco eracusle andiaren maisuac; bada esagutu ebanean bere adiñaren sortasuna icasteco, zucendu zan Mariagana, eta beronec jarichi eutsan arguitasun andi bat icasquizon guztietaraco ezaueran, batez bere filosofian. Baña iñoiz ez amaitutecoac izango litzatequez, imini bear balira liburuchu onetan banaan banaan, Eleizaco santu ta eracusle pisu andicoac azaldu ta aguertuten deuscuezan Birgiñearen mirari guztiac, eta beronegandic cristianuac artu izan dituezan mesede andiac, batez-



bere Andra Maria onen serbitzari leial izan diranac.

Baña izan arren guztiz andi eta mirariztute-coac Mariac bere debotoai eguiten deutseezan mesede ugariac, ez da guichiago arritutecoa bere erruquia peccatariacaz. ¿Noc ezdaqui celau libradu eban Teófilo erichon Aldamacó urico marior-domoa, peccatarien Ama ta bitarteco onec? Bada icusi ebanean Teofiloc bere burua zalatuta guzurragaz, icharopen baga, doloz ta lotzariz goituta, ichuturic, ueatu cituzan Cristo ta bere Ama be-deincatua, eta jarri zan guztiz Satanasen mementoan, emonagaz berari adoraciñoa, berac escribedutaco paper baten bitartez; baña guero biurturic Birgiñeagana, jarichi eban beronen bitartez beragandutea Satanasi emon eutsan papera, ta eguinico peccatu icaragarriaren parcaciñoa. Eta ¿cer esango dogu Maria penitentearen gañean? Emacume au izan zan pozu ciquin bat bere nasaiqueria ta peccatuacgaitic, baña Jerusalenera joan zanean zucendu zan Birgiñeagana ta esquiniric istea araguiaren atseguin loiai, izan zan Birgiñearen bitartez, birtutezco ortu loratzu bat ta penitente guztien ispillua.

Ez da guichiago arritutecoa 1094 garren urtean Mariac eguin eutsan gracia ta mesedea Alemaniaco emacume bateri, ceinee ill eban guizon bat, eta onegaitic condenau eben biciric erretaco: eroiela bada epai au betetaco, escatu eutsan bicirero Maria Birgiñeari laguntasuna, eta onec eguin eutsan mesede ain andia ce, bota izan arren sur-

tara birritan, ez jacon erre jantzico ari pusca bat-  
bere. Eta onelango mirariac eguin izan ditus  
guztiz asco, guizaldi guztietan eta munduco lecu  
guztietan, bicimodu guztiacaz, baquean cein gue-  
rran, doatsutasunean cein atsecabeen, bicitzan ta  
eriotzan, justoacaz ta peccatariacaz. Aimbeste mi-  
rari eguin izan ditus Jaunac bere Amaren ondra  
ta alabantzaraco, eta eguiten ditus egunoro mun-  
du zabalean Birgiña doatsu ouen bitartez, batez-  
bere lecu edo templu sagradu batzuetan, cein-  
tzuc izan diran berac autuac, erregutu ta benerau  
daigun eurretan aparteco onerazpenagaz Birgiña  
miragarri au,

Templu onetatic entzutetzuenac, beste ascoen  
artean dira: Pilar Zaragozacoa, non Santiago  
Apostoluari aguertu jacon Maria Birgiña, (orain-  
dic bici zala Jerusalenen), caspesco pilar baten,  
Ebroco ibaiaren ondoan, orain templua aurqui-  
tzen dan lecuan; Loreto-co templua, Italian, cei-  
netan dagoan gaur Ama Birgiña sortu ta jaio,  
eta Jaungoicoaren Semea sortu zan echea, oso  
osoric, Aingueruac Nazaretetic ecarrita; Montse-  
rrateco templua, Catalanian, eta leen aituta dan  
Guadalupeco templua, Españan; Lourdescoa,  
Francian; eta berton euscal-errian Begoñacoa eta  
Arantzazucoa, ta beste asco, alan Españan cein  
cristindade guztian, beneraciño andiañ dagoza-  
nac, ceintzuetan eguiten diran mirari guztiz asco,  
eta ceintzuecgaitic asco esan arren, beti gueldi-  
tucc da gueiago cer esan.

## MARIAREN DEBOCIÑOAC.

Ceruco Erreguiña, Maria Birgiñea, ain da erruquior ta onguillea ce, berari eguiten jacozan serbitzaririe chiquienacgaitic eguiten ditus mesederie andienac. Baña onelan sariztatua izateco, bear dira gauza bi: lenengo, gure ezquintzariac esquini pecatuen damuagaz; bada bestelan Mariac erantzungo leusquigu beste dempora baten soldadu nasai ta deunga bateri leguez, ceinec eucan ecandua eguiteco egunoro debociñoen bat Mariaren ondran. Egoala egun baten gose andiagaz, aguertu jacon Birgiña au, ta imini eutsazan bere aurrean janari gozuac, baña ain ontzi ciquinean ce, ez zan soldadua azartuten jaten. Ni naz, esan eutsan orduan Mariac, etorri nazana zuri gosea quenduten. Baña ontzi ciquin orretan ez nar azartuten jatera, erantzun eutsan soldadua. Mariac orduan esan eutsan: eta ¿celan gura dozu nic ontzat artu deidazan zure debociñoen ta ezquintzariac, bazagoz galgarriz ta loiqueriaz beneric? Au entzunic, soldadua ondu zan, sartu zan erligioso. ta bici zan basamortuan ogueta amar urtean, ta azquenean, eriotzaco orduan Ama Birgiñeac eroan eban beragaz cerura.

Bigarrengo bear dan gaucea da, Mariaren onerazpenean irauntea. Bacarric debociñoan iraunteten dabenac merecidu dau ceruco coroia, diño San Bernardoc. Eta Mariac berac adierazoten emon izan deutsee bere deboto ascori, cein pre-

mineascoa dan bere debociñoan azquenerarte irauntea.

Emendic aurrera iminten dira Mariaren debociño ascoen artetic, beronen guztiz gogoco diranac. Alan bacochar artu daiquez bere gogoa gueien betetan deutseenac. Ez da orregaitic escatuten batec artu eta bete bear dituzala danac, espada, bein artu ezquero debociño bat edo gueiago, euretan jarraitutea baño. ¡Ceimbat eta ceimbat cristinau, gaur impernuan dagozanac, salbaucó ciran jarraitu izan balebe euren guraz artu cituezan debociñoetan!

## AVE MARIAREN debociñoa.

Birgiña guztiz santeac chito asco estimetan dau Aingueruaren agur au, bada esan leique ce barriztetan jacola beragaz, Aingueru San Gabrielc aguertu eutsanean Jaungoicoaren Ama izango zala, artu eban poza. Orregaitic agurtu bear dogu sarritan *Ave Mariagaz*, dalaco beretzat guztiz gogocoa, Santa Matildari berac esan eutsan leguez. Baita bere gordetan dituz premina estu ta tentaciñoec deungatatic *Ave Maria* debociñoec esanagaitic, oitura on au dauqueen cristinauac.

Debociño au eguiten da, lenengo: Esanagaz belaunico iru *Ave Maria* goissian oeric jaguieran ta gaubian oera echutean, eta azquenean gueituagaz erregu labor au: *Zure Sortze guztiz garbieagaitic, O Maria, garbitu eguizu nire gorputza, ta santutu nire arimea;* eta escatu guero bere

bedeincaciñoa ta laguntasuna pecatuan jausi ez gaitezan egun edo gau atan.

Bigarrenko: Errezauagaz *Ave Marietacoac* goissian, egüerdian eta illemtzean, onetaraco campaiá joten dabenean.

Irugarrenko: Agur eguinazaz Jaungoicoaren Amari *Ave Maria* bategaz, erlojuac ordua joten dabenean.

Laugarrenko: Agur eguinagaz Birgiña Amari, echetic urten ta echera sartzen gareanean, gorde gaguizan barruan cein campoan pecatutic.

Bostgarrenko: Erreberenciauagaz errezpetoz Birgiña au beronen irudi edo imaginac dacuscuzanean, *Ave Maria* esanagaz.

## BEDERATZI-URRUNAC.

Issiotasun ta onarazpen andiagac celebretan dituez Mariaren debotoac beronen jaietaco bederatziurrunac, ceintzuetan Birgiña onec jaritzen deutseezan debociñoa au eguiten dabenaí gracia ugari ta apartecoac. Onetaraco eguin leiquezan eguiquerac dira onec:

Lenengo: Gogoazco oraciñoa goisian arratzaldean, bisitau Altaraco Sacramentu guztiz santua, ta guero gueitu bederatzi *Aita gurea* ta *Ave Maria* etc.

Bigarrenko: Eguin iru bisita Mariari bere irudi baten aurrean, ta emon ezquerrac Jaunari, Andra Mariari eguin izan deutzazan mesede ta pribilegioacgaitic; escatu bisita bacochean Maria-

ri mesederen bat, ta guero eguin oraciño bat, aurrago aurquituco dan leguez liburuchu onetan.

Irugarrenge: Eguin amodiozco actuac edo eguiquerac Jaungoicoari, bada ecinguinaique eguin Mariaren gogocoago dan gauzaric bere Semea maitetutea baño.

Laugarrenge: Eguin aguirico mortificaciñoen batzuc, ceintzuc diran: cilicioac, barauac, naien daben gauzaren bat ez jatea, eta beste onelangoac; baño onelango eguiquerac beti izan bear dabe confesorearen baiagaz. Bederatziurrunetan eguin leiquezan barruco edo biotzeco mortificaciñoac dira: premina bagaric ez beguiratutea ta ez entzun ta ez esatea gueien gustetan jacuzan gauzaren batzuc; ez azarrez erantzutea, irachopenagaz nequeac igarotea eta beste onelangoac. Eguiqueraric onena da, bederatziurrunean artutea asmua norberen utzeguinteac quenduteco, ta baita bere jarraitutea Ama Birgiñearen birtute ederrai.

Seigarrenge: Mariaren jaiian, Comuniñoen ostean, esquini bear gara bere serbitzari leial izateco, escatuaz onetaraco bear dogun gracia.

## ERROSARIO SANTUA.

Errosario santuaren onerazpena izan zan Maria Birgiñeac berac Santo Domingo Guzmanecoari eracutzia, santu au egon zanean guztiz estututa eregiac Eleiziari eguiten eutseezan calteagaitic. Ez da erraz aurquituco Jaungoicoaren Amarentzat debociño gogocoagoric errosario san-

tua baño, ez impernuarentzat bildurgarriagorie berau baño. Asco da esatea dagoala Eleiciac ontzat emonda, munduco, preminen osagarri ta guizonen salbaciñoraco. Erromaco Aita Santuac esarri izan deutseez debociño oneri parcamen asco, batez bere Errosarioco Cofradian sartuta dagozanentzat.

Parcamen onec irabasteco, bear dira gogoratu errosarioco misterioetan zarratuten diran mirariac. Errezau bear da debociñoagaz ta egunoro, gumutauric gagocela berbetan Amarie onenagaz, Jaungoicoaren Amagaz. Asi bear da *Curutze santuaren* etc., eguinda eta acto contriciñoecoa edo *Neure Jesucristo Jauna* etc., biotzetic esan da.

Ara emen Errosarioco misterioac:

### Misterio gozotzuac.

#### ASTELEN ETA EGÜENERACO.

1.º Misterioa. Jaungoicoaren Semearen guizon eguitea. *Aita gurea*, amar *Ave Maria* ta *Gloria* etc., eta bardin urrengo misterio guztietan.—2.º Misterioa. Ama Birgiñeac Santa Isabeleri eguin eutsan bisitea.—3.º Misterioa. Jaungoicoaren Semearen jaiqueria.—4.º Misterioa. Ama Birgiñearen Pureficaciñoa.—5.º Misterioa, Jesus galdu ta templuan aurquitu ebenecoa.

### Misterio dolorezcoac.

#### MARTITZEN TA BARICUETARACO.

1.º Misterioa. Jesusen oraciñoa Getsemanico ortuan.—2.º Misterioa. Jesusi pillarrean emon

eutseezan azoteac.—3.<sup>en</sup> Misterioa. Jesusi arantzazco coroa imini eutsena.—4.<sup>en</sup> Misterioa. Jesussec curutzeagaz Calbariora igo ebana.—5.<sup>en</sup> Misterioa. Jesus curutzean josi ta ill zanecoa.

### Misterio gloriotzuac.

DOMECA,

EGUAZTEN ETA ZAPATUETARACO.

1.<sup>o</sup> Misterioa. Jesucristoren biztueria illen artetic.—2.<sup>en</sup> Misterioa. Jesucristoren igoerea ceruetara.—3.<sup>en</sup> Misterioa. Espiritu-Santuaren etorreria.—4.<sup>en</sup> Misterioa. Maria Birgiñearen jasoeria ceruetara.—5.<sup>en</sup> Misterioa. Ama Birgiñearen Coronaciñoa.

Guero esaten dira Ama Birgiñearen letañac, ta Jesus eta Mariaren Biotz sagraduai *Credo* eta *Salve* bana.





## CARMENGO ESCAPULARIOA.

Carmengo Escapulario Santuaren onerazpen edo debociño, mundu guztian ain zabalduric dagoanac, euqui eban asieria araco 1251 garren urteco garagarrillaren amaseian, aguertu jaconeian Birgisiña guztiz santea San Simon Stoc, Carmengo ordeaco naguciari. Santu onec icusten eban, Carmengo Ordea aurquituten zala deseguin eta galdua izateco arrizecuan arerio asartu batzuen indar eta gaistaqueriagaitic; eta biotzeco samintasunic andienagaz, escatuten eutsan Birgisiña guztiz santeari, arren goitu eguizala bere eta bere Semeen arerioen esetsiac, eta emon eguiala ezaugarri edo prenda bat adierazoco ebana bera zala Carmengo erligiosoen Ama. Erruquituric Ama Birgisiña escari ain samurraz, aguertu jacon San Simoni, apainduriric ederrenacaz ta Aingueruz inguruturic, eta esan eutsan: *Artu eguisu, neure semea, ceurre ordenaco Escapulario au, cein dan neure anaitasunaren ezaugarria, ta cein izango dan ongarri aparteco zuretzaco eta beste Carmengo guztienzaco: berau daruala illten danac, ez dau igaroco betico suric;* eta berba pozgarrizco onec esanda, ichi eutsan San Simoni Escapulario bat.

Mesede ain on ta aparteco oneri laster erantzunt eutsen cristinauac, sartuagaz Escapulario santuaren Cofradian, cirala aurrenac Erromaco Aita Santu, Emperadore, Erregue ta aguintariasco ceintzuei jarraitu eutsen guero cristinau

ascoc; eta onelan zabaldu zan debociño au mundu guztian. ¡Eta celan ez, badaucagu beronen bitartez icharopena librauco gareala bético sutatic?

Orain bada, Escapularioac berez pecatuac parcatuteco escubideric euqui ez arren, esan ezquero Birgiña Carmengoac bere Escapularioa daruala illten dana, ez dala jausico impemura, adierazo gura dau, eguingo dabela bere aldetic al-dabena jaristeco bere Seme Jaungoicoagandic salbaciñoco gracia egoquia Escapulario erabilten dabenari.

Onez ganetic debociño onec daucazan bentajac dira: lenengo, Ama Birgiñearen laguntasuna euquitea bicitza guztian, ta baita eriotzaco orduan bere. Bigarrego: Carmengo Erli-gioso guztic jaristen dituezan gracia, parcamen, pribilegio ta beste espirituzco ondasun guztietan partea euquitea.

Mesede onec irabasteco bear dira gauza bi: lenengoa, artutea Escapularioa Carmengo Erli-gioso edo onetaraco escubidea dauquen Sacerdote baten escuetatic; eta bigarrena, Escapulario santu au sorbaldan edo idunean erabiltea inoiz bere quenda бага, batez bere eriotzaco orduan. Baña Cofradia ez diran leguez alperqueria gueituteco, ceruraco bidea erraztuteco baño, errazoe andia da gueuc bere eguin bear dogula gueure aldetic dagoana Maria Birgiñearen ondran, bere guganaco amodioac obliguetan gaituzan leguez, eta orretaraco egoqui da errezu batzuc eguitea,

eta enetatic bat da Ama Birgiñearen ceruco zazpi pocen icenean errecetea egunoro zazpi *Aitaguea*, *Ave Maria* ta *Gloria* etc.

Baña Maria Birgiñearen erruquitasuna ez da azpirtuten bere debotoai gracia jaristen; bada leen esan diran mesede ta gracia apartecoacaz zaristau arren Escapulario santua, gura dau oraindiño beste mesede aparteco bategaz aberaztu Carmengo Erligiño ta Cofradia; ta onetaraco, San Simon Stoc-ri aguertu jaconic eun urte igaro orduco, aguertu jacon Aita Santu Juan oguetabigarrenari, ta esan eutsan beste gauza ascoren artean: Carmengo cofradian sartu ta bere Escapularioa erabilten dabenari, guichituco jacola lenengo egunetic pecatu parcaturicoacgaitic zor daben peniaren irugarran partea, eta illten danean joaten bada Purgatorio edo Garbilecura, ateraco dabela andic urrengo zapatuan ta eroango dabela betico zoriontasunera. Baña graciau irabasteco, Escapularioa erabilteagaz ganera, gorde bear da garbitasuna edo cañtidadea bacocharen bicimoduari joacan moduan, ta errezaugunoro Birgiñearen *errezuquizun laburra* derichona, iracurten jaquin ezquero. Errezuau ecin dabenac, gorde bear ditu eragozpenic euqui ecic Eleiciaren barauac ta ez jan oquelazco gauzaric eguazten eta zapatuetan. Baña au bere guztia ecin daben leguez, aldatu darue beste errezu batzuetan Cofradian sartuteco escubidea dauqueenac.

Eguiaz, mesede ain andi ta apartecoac gaitic, daucagu cristinauac cer ezquer andiac emon Ama

Birgiña guztiz erruquiorrari, batez bere Carmengo Cofradian sartuta dagozanac, bada bere Escapularioaren bitartez dauque euren salbaciñoaren icharopen segurua.

Esan dan Carmengo Escapularioaz ostein dagoz beste batzuc, ceintzuc diran: Doloretacoa, Mercedécoa eta Concesiñoecoa, ta onec bere dauqueez parcamen asco, batez bere Concesiñoecoac.



## AMA BIRGIÑEARI ERREGUAC.

### BISITEA.

Maria Birgiña guztiz garbi ta neure Ama, zareana neure Salbaguillearen Ama eguiazcoa, munduco Erreguiña, peccatarien bitarteco icharopen eta gordetzallea, zugana nator ni gaur guztien artean ezeuqui ta errucarrien nazan au. Adoretan zaitut, ¡O Erreguiña andia! ta umilltasunez emoten deustudaz ezquerrac orain artean eguin deustazuzan mesede guztiaegaitic, ta batez bere libradu izan nozulaco impernutic, sarritan

merecidu izan dodana neure pecatuacgaitic. Maitetuten zaitut Andra guztiz maitegarria, ta deutsudan amodioagaitic artuten dot gogoa ceu serbidu ta maitetute-co, eta eguiteco aldodana beste guztia bere serbidu zaiezan. O Erruquiaren Ama, Jesucristo Jaunaren urrengo, zukan iminten dot neure icharopen guztia; artu naguizu ceure serbitzaritzat, escudatu naguizu ceure laguntasunagaz, eta ain altsua zarean ezquero Jaungoicoagaz, libradu naguizu esetsi deunga guztietatic eta jarichi eguidazu eurac goitute-co gracia.

Escatuten deutsut amodio eguiazco bat neure Jesucristo Jaunaganaco, eta zure bitartez icharoten dot eriotza on bat. O neure Ama, Jaungoicoari deutsazun amodio andiagaitic, escatuten deutsut laguntasuna, ta batez bere neure bicitzearen azquenean; ez naguizu desamparau ceruan sartu arte, alabau ta cantetaco zure misericordiac beticotasun guztian. Alan izan dedilla.

## MARIAREN BIOTZ SAGRADUARI

### ADORACIÑO A.

Adoratzen dot ¡O Birgíña ta Jaungoicoaren Ama! Principaduen Coruagaz batera zure Biotz sagradua, ta escatuten deutsut jarichi deidazula ceure Seme Jesusgandic biotz otzana ta umildea beti iraunteco gracian *Aita gurea*, *Ave Maria* ta *Gloria*.

Adoratzen dot ¡O Birgíña ta Jaungoicoaren

Ama! Goiangueruen Coruagaz batera zure Biotz sagradua, ta erregututen deutsut jarichi deidazula zure Seme Jesus-gandic neure gorputz, arimata biotzeco garbitasuna. *Aita gurea, Ave Maria ta Gloria etc.*

Adoratzen dot, ¡O Birgiña ta Jaungoicoaren Ama! Aingueruen Coruagaz batera zure Biotz sagradua, ta erregututen deutsut jarichi deidazula ceure Seme Jesus-gandic gracia eguin al-izateco neure lagun progimuei caridade ta misericordiazco eguiquerac Amen. *Aita gurea, Ave Maria ta Gloria etc.*

## ERREGUA.

Gomutau zaite, O Maria Birgiña guztiz erruquiorra, ez dala iñoiz entzun, zuc desamparauta ichi dozula batchubere, zugana zucendu, zugana eldu ta zuri laguntasuna escatu deutsunic. Uste ta icharopen onegaz sendaturic, O Ama Dontzelleen Dontzellea, nator arin zugana, eta macurturic neure pecatuaren pisuaren azpian, negar eriuari, echuten nas zure oñetan. O Jaungoicoaren Semearen Ama, ez eguizu, arren, nire erregüei ez-entzunic eguin, ta bai, abegui onagaz, aditu eguizuz eta emon eguidazu escatuten deutsudana. Alan izan dedilla.

---



## AMARRECUA

Sorrera garbico Birgiñeari.

Bedeincatua zure garbitasuna  
Beticotasun guztian,  
Jaungoico bera poztzen dalaco  
Zure edertasun andian.  
¡Ceruco Erreguiñ parebagea  
Dontzell guztien loria!  
Gaurtic nic deutsut esquintzen  
Bici, biotz ta arimia;  
Beguirra bigun, ez ichi ni, arren,  
O nire Ama chit maitia.

## SANTO TOMÁS AQUINOCOAREN ERREGUA

O Maria Birgiña guztiz dontsu, gozo ta misericordiaz betea, zure biotz erruquitzuaren escuetan iminten dodaz neure arima, neure gorputz, neure gogoac, neure eguite, neure bicitza ta neure eriozea. O neure Ama Andrea, lagundu ta sendatu naguizu demoniñoaren asmuen contra, jarichi eguidazu amodioa, ceinegaz maitetu daguidan gauza guztia baño gueiago zure Seme guztiz maite ta neure Jesucristo Jauna, ta bere urrengo. Zu, bedeincatienna andra guztien artean. ¡O Erreguiña ta Ama neurea! Eguizu ceure bitartecotasun andiagaz iraun daguiela nigan amodio onec eriotzaco orduraño, ta au igaro ezquero, eroan naguizu betico zorientasunera.

Zugan imini dot neure icharopen guztia.

Ecín izan leiteque, Andra Maria, zue istea ceugan icharopena imini dabenic.

Bacarric gura eguizu gure osasuna, ta eguiaz izango gara salbauac.

Jaungoicoac gorde zaizala, Aita Jaungoicoaren Alaba; Jaungoicoac gorde zaizala, Seme Jaungoicoaren Ama; Jaungoicoac gorde zaizala Espiritu-Santu Jaungoicoaren Esposa; Jaungoicoac gorde zaizala, Trinitade guztiz Santuaren Templua.

Maria Birgiñeac lurrean euqui cituzan

atseguinen errezua.

I.<sup>gora</sup> Poztu zaite, O Birgiña Maria, Aingueru San Gabrieleac agurtu cenduzanean sortu cendualaco ceure sabolean Aita Beticoaren Semea, Espiritu-Santuaren bitartez. *Ave Maria* etc.

II.<sup>garrena</sup> Poztu zaite, O Birgiña Maria, bederatzi illa igaro cireanean arguitara emon cendualaco guztia desiatu izan eben Seme maitea, gueraturic ceu Birgiña garbi, eta aingueru ta arzañiac bera adoretan icusi cenduzalaco. *Ave Maria* etc.

III.<sup>garrena</sup> Poztu zaite, O Birgiña Maria, icusi cenduzalaco iru erregueac adoretan ceure Seme guztiz santua, eguiazco Jaungoico, Erregue ta munduco Salbaguilletzat. *Ave Maria* etc.

IV.<sup>garrena</sup> Poztu zaite, O Birgiña Maria,



ceure Seme guztiz santuaren erioitzeagaitic, ain-  
beste tristura ta bacartasun igororic, biztuta, glo-  
riaz beteric icusi cendualaco. *Ave Maria* etc.

V. <sup>garrena</sup> Poztu zaite, O Birgiña Maria, icusi  
cendualaco ceure Seme guztiz santua cerura glo-  
riaz beteric igoten, Aita Jaungoicoaren escumata-  
tic jarriteco. *Ave Maria* etc.

VI. <sup>garrena</sup> Poztu zaite, O Birgiña Maria, Es-  
piritu-Santua bere etorreran zure eta apostoluen  
gañera etorri zalaco. *Ave Maria* etc.

VII. <sup>garrena</sup> Poztu zaite, O Birgiña Maria,  
Trinidad guztiz santuac, ceru ta lurreco Erre-  
guiñatzat coroia iminteco, cerura eroan cenduza-  
laco. *Ave Maria* etc.

### Ama Birgiñearen atseguinac ceruan.

I. <sup>goa</sup> Poztu zaite, O Aita Jaungoicoaren  
Alabea, zure bardinbagaco garbitasun ta santida-  
deagaitic, zarealaco Aingueruac eta Santuac ba-  
ño goratu ta altsuagoa. *Ave Maria* etc.

II. <sup>garrena</sup> Poztu zaite, O Seme Jaungoicoa-  
ren Ama, egusquiac lurra arguitu ta edertuten  
daben leguez, zue ceure arguitasunacaz ceruac  
edertuten dozuzalaco. *Ave Maria* etc.

III. <sup>garrena</sup> Poztu zaite, Espiritu-Santuaren  
Esposia, Aingueru ta zorioneco guztia maitetu,  
ondrau ta serbiduten zaituezalaco euren Erre-  
guiña ta Eguillearen Ama leguez. *Ave Maria* etc.

IV. <sup>garrena</sup> Poztu zaite, O Irutasun guztiz  
Santuaren Templua, ceure Semeac emoten deu-

tsulaco escatuten deutsasun guztia, eta ceure es-  
cuetatic emoten deutzeezalaco guizonai gracia  
guztiac. *Ave Maria* etc.

V. <sup>garrena</sup> Poztu zaite, O ceruetaco ta lurreco  
Erreguiña, ceuc bacarric merecidu izan dozulaco  
jartea ceure Semearen escumatatic, bera dagoan  
leguez Aitaren escumatatic. *Ave Maria* etc.

VI. <sup>garrena</sup> Poztu zaite, O Erruquiaren Ama,  
Jaungoicoa saristetan dituzalaco emen lurrean  
graciagaz ta ceruan gloriagaz, ceu alabadu, ser-  
bidu ta erreberencietan zaituezanac. *Ave Ma-  
ria* etc.

VII. <sup>garrena</sup> Poztu zaite, Dontzelleen Dontze-  
ilea, zure poz eta atseguin guztia ez direalaco  
iñoiz amaitu ez guichituco, eta iraungo dabeela-  
co beticotasun guztian. *Ave Maria* etc.

Ama Birgiñearen zazpi doloreen errezua.

### ERREGUA.

¡O Maria Birgiña, Jaungoicoaren Ama mira-  
garrizco ta munduco Amatic errucarriena! Zure  
oñetan auspasturic erregututen deutsut, zure do-  
loreacgaitic eta zure Seme maitearenacgaitic, ja-  
richi daguidazula nire pecatuen parcaciñoa,  
gueiago ez eguiteco gracia eta escatuten deutsu-  
dan mesedea, nire arimearen salbaciñoraco bal-  
din bada, eta bestela, bera ta ceu serbiduteco  
gracia, gomutetan dodazala onetaraco zure zazpi  
doloreac.

### LENENGO DOLOREA.

¡O Ama erruquior ta doloz betea! Ceure Semea Jerusalengo templuan presentau cenduanean, araco Simeon santuac bere besoetan arturic, esan eutsunean dolozco espata batec iragoco ebala zure arimea, artu cenduan dolozagaitic, escatuten deusut jarichi deidazula gracia garbituteco neure arimea eguiazco penitenciagaz, izan naitean zure aurrean iminia gloriaczco templuan. Amen. *Aita gurea, Ave Maria ta Gloria,* ta guero escatu bacochar nai daben mesedea.

### BIGARREN DOLOREA.

¡O Ama erruquior ta doloz betea! Nazaretetic Egiptora ceure Semeagaz igues-eguin bearzan cenduanean artu cenduan dolozagaitic, arren, escatuten deusut, Jaungoicoa ofendiduteco arrizcuetatic igues eguiteco gracia. Amen. *Aita gurea, Ave Maria ta Gloria etc.*

### IRUGARREN DOLOREA.

¡O Ama erruquior ta doloz betea! Ceure Seme laztana galduta iru egunean aurquitu ecin cenduanean artu cenduan dolozagaitic, escatuten deusut, arren, bera billatuteco gracia neure arimaco templuan aurquitu arte. Amen. *Aita gurea, Ave Maria ta Gloria etc.*

### LAUGARREN DOLOREA.

¡O Ama erruquior ta dolorez betea! Ceure Some maitea curutze astun bat lepoan ebala, icusi cenduanean Larricalean Calbariora eroiela artu cenduan doloreagaitic, arren, indazu gracia neure bicimoduco curutzea paciencian eroanagaz, jarraitu daiedan beti berari. Amen. *Aita gurea, Ave Maria ta Gloria etc.*

### BOSTGARREN DOLOREA.

¡O Ama erruquior ta dolorez betea! Ceure Seme laztana curutzean josten icusi cenduanean artu cenduan doloreagaitic, arren, indazu gracia, nire griñac aspiraturic, bici nadin beti Cristo nigaitic curutzean josiagaz. Amen. *Aita gurea, Ave Maria ta Gloria etc.*

### SEIGARREN DOLOREA.

¡O Ama erruquior ta dolorez betea! Ceure Semearen gorputz illa curutzetic jatsi ta ceure besoetan imini eutsuenean artu cenduan doloreagaitic, indazu gracia, comulguetan nazanean artu daguidan bera bear dan leguez. Amen. *Aita gurea, Ave Maria ta Gloria etc.*

### ZAZPIGARREN DOLOREA.

¡O Ama erruquior ta dolorez betea! Ceure

Seme maitearen gorputza obipetua izan zanean artu cenduan doloreagaitic, arren, indazu gracia, pecatua bear dan leguez gorrotaturic, bici nadi-lla illic mundu onetaco atseguinentzat. Amen. *Aita gurea, Ave Maria ta Gloria etc.*

## ERREGUA.

Neure Ama Doloretzua, araco zure Seme Jesusce curutzean josiric ta zu bere oñean penaz beteric cengozala, ichi cenduzan ezquero San Juanen eta gure amatzat, ceure doloreen semeac izateco, eracutzi eguizu nire Ama zareala, ta jarichi eguidazu escatu deutsudan mesedea, ta ceure Semearen serbicioan beti biciteco gracia, mericidu izan daidan guero betico glorian Bera ta ceu alabetea. Alan izan dedilla.

*Salve bat Ama Birgiñeari.*





## AMA BIRGIÑEARI CANTAC.

*Magnificac anima mea Dominum.*

Goratuten dau nire arimeac  
Ceruco Jaun ta jaubea;  
Ta bere alabantzac pocez cantetan  
Dago espiritu nirea.

Bere esclabearen umildadean  
Ezarri dituz beguiac;  
Orra cergaitic deituco deusten  
Dontsua mundu guztiac.

Gauza andiac ein dituz nigan  
Gutziz altsua dau Jaunac;  
Ta bere icena dala santua  
Autortzen dabe danac.

Bere erruquia zabalduco da  
Guizaldi guzti-guztietan,

Eta iraungo dau guizonacaz  
Bere maiteen biotzetan.

Aguertu eban bere besoco  
Indarra zala sendua,  
Austu, banatu ta deseguinic  
Guizonen biotz arrua.

Jargoi garaitic bota cituzan  
Andizale ta aldunac;  
Jarri cituzan aurqui goenian  
Biotz umilla ebenac.

Ezeuqui ta gosez egozanac  
Bete cituzan onerez;  
Cequenac barriz ezereztuta  
Bialduric atsecabez.

Gogoraturic bere erruqui  
Andi ta neurribagueaz,  
Artu dau Israel bere pecuan  
Zaintzeco ardura beteaz.

Gure asabai, Abrahan aitari  
Cirautzan leguez esquini,  
Euren semeac eingo cituzala  
graciaz gañezca imini.

*Ave Maris Stella.*

Jaunac gorde zaizala  
Ichasoco izarra,  
Jaungoicoaren Ama  
Garbi ta bacarra.

Eta Birgiña beti  
Beti izanecoa

Ceruetaco ate  
Zorionecoa.

Gabrielen aotic  
Ave bat arturic,  
Cein dan Eva-n icena  
Letrac biurturic;

Eguiguzu baquea  
Gueure Jaun onagaz,  
Sierpien burua  
Zapalduta oñagaz.

Arcatuizuz cateac  
Errudun guztiai,  
Emoizu arguitasuna  
Itsu dagozanai;

Quenduizuz gure gachac  
Birgiña Maria,  
Escatuizu guretzat  
Ona dan guztia.

Arren eracutzizu  
Ama zareala,  
Ceugaitic escariac  
Ac artu deizala;

Cein mundura etorrita  
Gugaitic bacarric,  
Ceure Seme izatea  
Igaro eban pocic.

Birgiña guztiz bacar  
Ama Jesusena,  
Jaio danen artean  
Biotz bigunena;  
Quendu ta gure culpen



Guztiz cate aztunac,  
Eguizu izan gaitezan  
Garbi ta bigunac.

Emoiguzu gracia  
Biciteco garbi,  
Eta eguiguzu bide  
Ciurrean argui;

Bici gaitezan beti  
Jesusen aurrean,  
Iñoiz amaituco ez dan  
Atseguin artean.

Alabantzac Jaungoico  
Guztion Aitari,  
Hosana Seme berac  
Ungidu ebanari:

Baita Espiritu-Santu  
Jaunari amodioa,  
Iru personentzaco  
Bardin onoria. Amen.

Arren ontzat artuizu  
Birgíña Santea,  
Neure dempora guztietan  
Ceu alabetea:

Ecazuz Ama neuri  
Fedian indarrac,  
Puscatuteco ceure  
Arerio charrac.





## AMA BIRGIÑA CURUTZEPÍAN

EDO

### STABAT MATER.

Negar ampuluz curutzepian  
Ama minduraz betea,  
Egoan larri, an josita icusirie,  
Bere Seme maitea.

Bere arima chit saminduric  
Tristuraz penen indarrac,  
Erdibi eban oso ta bici  
Min gorriaren espatac.

¡O cen triste ta minberatua  
Egon zan Ama dontsua,  
Emon euscuna beria eban  
Seme bacar Jaungoicua!

Bada eucan, bai, Ama gueissuac  
Burua miñez quiscaltzen,  
Semearenac an ecusalaco  
Begui aurrean azaltzen.

¿Cein da guizona, negar urtuten  
Berez egongo etzana,  
Icusi baleu ain necatua  
Cristoren Ama lastana?

¿Nor ez da, bada, erruquituco  
Malcoz beguiac bustiric,  
Icusiagaz Cristoren Ama  
Bere Semeaz ain minic?

Icusi eban Jesus, errien  
Pecatu danac zamatzen,  
Eta beragan millaca miñatz  
Ta cigorrada artuten.

Icusi eban Seme gozoa  
Eriotzaren mendian,  
Minbera larriz bere Aitari  
Espiritua istean.

Bai, ene Ama amorezcoa,  
Erruqui biciz beteric,  
Negar eguiten lagun eidazu  
Zure min orrec sentiric.

Lagun eidazu nere biotza  
Jaungoico amorez urtuten,  
Cristoren asmu Jaungoicozcoac  
Atseguin andiz gueituten.

Ama Donea, curutzetuta  
Zanaren minautz zorrotzac,  
Nigan ezarri, josita gorde  
Daizan, bai, nire biotzac.

Zure Semeac aimbeste pena  
Eruan izan ebana,  
Banacatuizu Amacho nigan,

¡Ni naz mereci dodana!  
Curutzetuta gure amorez  
Dagon Jesusen ofietan,  
Lagun, negarrez egoten, nire  
Bicico egun danetan.

Curutz onduan, zutunic zugaz  
Lagun eguiten jartea;  
Eta irauntea orche negarrez  
Da nire borondatea.

Amen.



# BILLABIDEA.

ORRIAN.

Sarrera . . . . .	3
Ama Birgiñaren bicitza: Bere sortze garbi ta jaiotzea . . . . .	6
Maria Jerusalemgo templuan . . . . .	8
Jaungoicoaren Semea sortuten da Maria- ren sabelan . . . . .	11
Jesusen jaiotzea Maria Birgiñeagandic ta onen eguizun ta nequeac . . . . .	16
Ama Birgiñearen doloreac bere Semearen pasiño ta eriotzan. . . . .	20
Maria Birgiñearen lanac bere Semea ce- ruratu ezquero. . . . .	26
Maria Birgiñearen eriotza ta cerura igoera	28
Maria Birgiñearen mirariac . . . . .	37
Mariaren debociñoa . . . . .	41
<i>Ave Mariaren</i> debociñoa . . . . .	42
Bederatzi-urrunac . . . . .	43
Errosario santua . . . . .	44
Carmengo Escapularioa . . . . .	47
Ama Birgiñeari erreguac: Bisitea . . . . .	50
Mariaren Biotz sagraduari adoraciñoa . . . . .	51
Erregua. . . . .	52
Amartecoa . . . . .	53
Santo Tomás Aquinocoaren erregua . . . . .	53
Ama Birgiña lurrean euqui cituzan atse- guinen errezua . . . . .	54

Ama Birgiñearen atseguinac ceruan . . .	55
Ama Birgiñearen zazpi doloren errezua . . .	56
Ama Birgiñeari cantac: <i>Magnificat anima mea Dominum</i> . . . . .	60
<i>Ave Maris Stella</i> . . . . .	61
Ama Birgiña curutzepian edo <i>Stabat Mater</i>	64





IMPRESA, LIBRERÍA,

ENCUADERNACIÓN Y CENTRO DE SUSCRIPCIONES

DE

FLORENTINO DE ELOSU

*Plaza de Santa María*

DURANGO (Vizcaya).

En este establecimiento, montado con todos los adelantos que la Tipografía exige, se imprimen toda clase de trabajos relacionados con la misma, con prontitud, economía y esmero; tales como Tarjetas, Recuerdos piadosos, Membretes, Recibos, Circulares, Menus, Prospectos, Facturas, Estados, etc., etc.

En el ramo de Librería encontrarán nuestros numerosos favorecedores, cuadernos, objetos de escritorio, libros de comercio, papel, sobres, felicitaciones, tinta fina, libros y menaje para la Primera Enseñanza, etc., etc. Gran surtido de Devocionarios última novedad, estampería, flores artificiales y demás objetos religiosos.

Obras Litúrgicas, Misales, Breviarios, Diurnos, etc., de las principales casas. Suscripción á periódicos y revistas católicas. Corresponsal de

la Revista *Mensajero del Sagrado Corazón de Jesús* y depósito de las obras de propaganda que publican los Padres de tan ilustre Compañía.

Depósito del gran DICCIONARIO DE CIENCIAS ECLESIASTICAS, Teología dogmática y moral, Sagrada Escritura, Derecho canónico y civil, Patrología, Liturgia, Disciplina antigua y moderna, Historia eclesiástica, Papas, Concilios, Santos, Órdenes religiosas, Cismas y herejías, Escritores, Personajes célebres, Arqueología, Oratoria sagrada, Polémica, Crítica, Misiones, Mitología, Errores modernos, etc., etc., y principalmente cuanto se refiere á nuestra España; publicado bajo la protección y dirección de muchos Sres. Arzobispos y Obispos, por los señores Dr. D. *Niceto Alonso Perujo*, Doctoral de Valencia y Dr. D. *Juan Pérez Angulo*, Auditor del Supremo Tribunal de La Rota, y otros muchos distinguidos escritores eclesiásticos.

Esta obra que consta de 10 grandes tomos á dos columnas, y en la cual el Clero puede encontrar reunido todo cuanto le ocurra saber para desempeñar las multiplicadas atenciones de su ministerio, solo cuesta 110 ptas. en rústica, 130 y 140 ptas. según su encuadernación. Se entrega al comprador la obra entera de una vez, y se paga á plazos. Pídase prospecto que se remite gratis.

Obras de Kneipp, del P. Luis Coloma, Fernan Caballero, P. Franco, Polo y Peyrolón, Pereda, Truëba, Selgas, Donoso Cortés, P. Ribadeneira, P. Juan Eusebio Nieremberg, P. Luis de



la Puente, Fray Luis de Granada, obras de don Juan Troncoso, obras del P. Schoupppe S. J., obras de S. Agustín, Santo Tomás, P. Claret, Faber, Balmes, San Alfonso Maria de Ligorio, R. P. Raulica.

Sermones de Agustí y Milá, Argentán, Alvarez, Armañá, Barbier, Besson, Biblioteca de Predicadores, Bossuet, Bravo y Tudela, Bret, Bridaine, Buldú, Cámara, Calvo, Caminero, Carrión, Cascallana, Castellote, Centurione, Chevassu, Claret, Climent, Combalot, Cuesta Espino, Didon, Díez, D'Hulst, Erro, Espar, Fabri, Félix, González, Gual, Guereñu, Guerra, Gutierrez, Hernández Fraile, Hernández y Durá, Infante, Lacordaire, Lanuza, Lasagabaster, Lázaro y García, Lázaro Garzón, Ligorio, Lobner, Lucerna, Mac-Carthy, Mansi, Martinez y Sáez, Mazo, Mejía, Melguizo, Metola y Cuende, Miechow, Monescillo, Monsabré, Montargón, Moreno Cebada, Muñoz Garnica, Muñoz Herrera, Palacios, Peronne, Perujo, Piconio, Planas, Pláticas parroquiales, Pratmans, Raulica, Rico Frontaura, Sanchez, Sanchez Arce y Peñuela, Sanchez Juárez, Sanchez Sobrino, Santander, Sanz y Fores, Schoupppe, Señeri, Sermones de misión cuadragesimal, Sermones del mes de Mayo en vascuence por Moguel, Sermones en vascuence por D. Andrés de Iturzaeta (2 tomos 14 ptas.), Solá, Solano, Sousa de Macedo, Thomas, Troncoso, Velázquez y Arroyo, y Wiseman.

**MANUAL LITÚRGICO** por Solans, última edición.

LOS HETERODOXOS ESPAÑOLES por Menendez Pelayo, 3 tomos en 4.º con pasta, 38 pesetas.

MES DE MAYO en vascuence.

MODO DE AYUDAR Á BIEN MORIR en vascuence.

AÑO CRISTIANO Ó EJERCICIOS DEVOTOS PARA TODOS LOS DIAS DEL AÑO. Contiene la explicación del misterio del santo de cada día, algunas reflexiones sobre la epístola, y una meditación sobre el Evangelio de la Misa, con algunos ejercicios prácticos de devoción á propósito para toda clase de personas por el P. J. Croisset, traducido por el P. J. F. de Isla de la Compañía de Jesús. Nueva edición, aumentada con las Dominicas, el Martirologio Romano y los santos nuevamente aprobados, revisada y aprobada por el P. J. de T. Rodríguez.

Esta riquísima obra tiene un papel superior agarbanzado, impresión muy clara, grabados preciosos de acero, encuadernación elegantísima con cantos dorados, costando solamente sesenta pesetas.

Esta casa es propietaria del acreditado papel pautado, gráfico inglés, P. TEJADA. Tiene corresponsales en los principales puntos de España y del Extranjero, por lo que se encarga de traer cuantas obras católicas se le pidan.

Gran surtido de estados impresos para Parroquias, según la Sinodal. Expedientes matrimoniales.— Sellos de Cautchoe para Parroquias, etc. Encuadernaciones de todas clases.



